

**EUSKARA
FAKTORE
INTEGRATZAILE
GISA:ETORKINAK**

0. SARRERA

1. LURRALDE MIGRAZIOAK

2. HISTORIKOKI MIGRAZIOA EUSKAL HERRIAN

3. EGUNGO EGOERA

3.1. INMIGRAZIOA EUSKAL HERRIAN

3.2. KULTUR ANIZTASUNA ETA HIZKUNTZA POLITIKAK

3.3. HIZKUNTZA KOMUNITATEAREN EGITURAKETA

4. ZENBAIT EGITASMO ETA HAUSNARKETA

4.1. HEZKUNTZAN: STEE-EILAS

4.2. SORTZEN

4.3. KATALUNIA

5. ONDORIO GISA

SARRERA GISA

Gaur egun inmigrazioaren gaia pil-pilean dagoen afera dugu. Batzuek egungo arazo larrienetariko delat behin eta berriz esaten dute, beste batzuek aldiz, kultur aniztasunaren izenean pertsona hauek gure ingurunean biziko direla konsziente izaki, ahalegin berezi bat egiten ari dira gizarteari zuzentzen zaizkion mezu negatibo horiei buelta eman eta gizabanako guztien eskubideak bermatuak izango diren gizarte arteko elkarbizitza bideratzen.

Gai hau jorratu nahi izanaren arrazoi nagusietako bat, egungo gizarte bizitzen ari den aldaketa honen aurrean gure aukerak eta ahuleziak aztertzeaz gain, gerora begira eta gaur egun ere honek euskal komunitatean izan dezakeen eragina aztertzea da.

Euskal Herria ez da fenomeno hau jasaten ari den herrialde bakarra jakina, baina gurean, hizkuntza normalizatuak ez dituzten arazoekin egiten dugu topo. Hizkuntza handiak, indartsuak, izango dituzten bruruhausteez gain gurean, hizkuntza minorizatu eta gutxiagotutako batekin aurkitzen gara (tokian tokiko egoera kontuan izanik ; Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Nafarroa eta Iparraldeko egoerak arras ezberdinak dira), eta honek gure kasuan eragin handia izan dezakeela azpimarratu behar dugu. Izan ere, gure aldetik indarrak batu eta ahaleginak egiten ez baditugu, gero eta kopuru handiagoa den giza talde hau erdal komunitatean integratzeko joera naturala izanen du, gehienek jakin ere ez baitakite hemen bestelako hizkuntza bat mintzatzen dela, erdaraz gain, eta beste kultura eta tradizio konkretu batzuk ditugula. Hortaz, guretzat gai hau berri samarra den arren (edo ez hain berria gero ikusiko dugun moduan Espainiako etorkin ugari ere gurera heldu baitziren orain ez asko), apurka-apurka horretaz konszienteki eskuhartze proposamenak egiteko garaian gaudela dirudi.

Lan honek ez du etorkinen aferak sortzen ahal dizkigun galdera, zalantza eta abar guztien erantzuna izan nahi, ez baitago erantzun orokor eta guztientzat baliagarri izango denik, egungo euskal komunitateak bizi duen aferetako batera hurbilpen bat besterik ez du izan nahi, gaia hurbilgotik ikusi, eta orain arte egin diren eta egiten ari diren hausnarketa eta proiektuetariko batzuen azalpena besterik ez. Egitasmo hauek alor eta baita herri ezberdinetakoak izango dira (hezuntza hizkuntz politika...) beti ere gurera begira baliagarri izan daitekeen informazioa biltzen du.

1. LURRALDE MIGRAZIOAK

Migrazioak:

Gizarte mota askoz hitz egiten da azken garaian; gizarte digitalak, informatizatuak, ekonomia globalizatua dutenak...baina beharbada gizarte migratorioetaz solastea egokiago litzateke gaur egun. Mendebaldeko gizarteotan, gero eta gutxiago dira jaiotakoak, bizi eta hil leku berean egiten duten pertsonak.

Migrazio uholdeak, kuantitatibo zein kualitatiboki handitzen doazela ezin ukatu; turista, ikasle, exiliatu, enpresari...mundu osoan mugitzen diren pertsonak ditugu. Gaur egungo emigratzaileak mota aunitzetakoak izan daitezke, hala nola; sozioekonomikoki maila ezberdinetakoak, behin baino gehiagotan bere herrialdetik irtendakoak, arazo ekonomiko zein pertsonalengatik bere lurraldea utzi dutenak...; egungo inmigratioak, nazio, udalerrri, bizileku, lagun eta kasu guzietan giza harremanen sareen aldaketa dakar. Honela, izugarritzko garrantzia hartu du gizabanakoaren eta bere giza ingurunearen arteko elkargune berriak.

Mendeetan zehar Europatik Ameriketara joandako emigratzaileak milioika eta milioika pertsonetakoak izan da sistema kolonialaren babesean. II. Mundu Gerrateren amaierak kolonizazio sistemaren gainbehera ekarri zuen eta Europako industriaren zabalkundea, eta honekin batera, migrazio mugimendu berriak non Asiatik eta Afrikatik Europara eta Europako hegoaldetik iparraldera mugitukoak nagusitzen diren. Bi hamarkada baino gehiagotan zehar, milioika italiar, yugoslaviar, espainiar, portugaldar, greziar eta turkiar Europako iparraldea hartu zuten jo muga. Egun, tradizioz emigratzaileak izandako herriak, Italia edo Espainia kasu, inmigratzaileendako helmuga erakargarri bilakatzen ari dira.

Faktoreak:

Ekonomiaren globalizazioak, komunikazioen hobekuntzak, ezberdintasunen areagotzea eta bizibaldintza hobeen bila abiatzeak zalantzarik gabe egun jasaten ari garen biztanleriaren mugimenduen arrazoietariko batzuk besterik ez dira. Baina tensio etnikoak, barne gatazkak, lurralde auitzetan oraindik orain gertatzen ari diren giza eskubideen urraketak, jazarpenak...ondorio latzak ekartzen ari diren faktoreak dira. Muga arteko gatazka, inbasio eta erregimen politikoaren ondorioz azken urteetan 30 milioi pertsona baino gehiago hil dira, gehiengoak zibilak eta aldi berean halabeharrezko migrazioak eta barne-migrazioak areagotu egin dira, eta nahiz eta hau fenomeno zaharra izan, gaur arte ezezaguna zen dimentsioa hartzen ari da munduko kontinente guzietan.

1965ean munduko errefuxiatuen kopurua bi milioitara ere ez zen iristen, baina 1960 eta 1970eko hamarkadan hasi eta gaur arte 15 milioi pertsonetara iristen ari da (formalki errefuxiatu moduan ez dauden milioika pertsona kontuan hartu gabe)¹. Eta gainera aurreikuspenek kopuru hau inolako geldialdirik gabe aurrera doala erakusten dute.

¹ ACNUR,1995, in J.I.Ruiz de Olabuénaga.2000. *Inmigrantes* . Acento Editorial. 13.orr.

Egun migrazio gehienak hirugarren munduan egiten dira eta gainera horietako asko bertan gelditzen dira, lehenego mundura datozenak zati bat besterik ez dira². Migratzen duten pertsonak gazteak izaten dira, eta askotan baliabideak familikoak izan ohi dira kide guztien etorkizuna hipotekatuz.

Halaberean, hauetariko askok familia dakarte eurekin eta honek, lehen ez bezala (lanera zetorren gizon heldua eta bakarrik zetorrena) gizarteko beste zerbitzu batzuk erabili beharra ekarri du berarekin.

“La nueva estructura de los grupos migratorios supone un coste social creciente, porque del emigrante temporal, adulto y con trabajo se ha pasado - debido al reagrupamiento familiar y al aumento de las tasas de paro - a grupos familiares con necesidad de escolarización, atención médica, asistencia social y seguro de desempleo”³

Migrazioek ez dute logika zehatz bat eta arrazoi oso ezberdinak izan ditzakete pertsona hauek beren herrialdetik atera nahi izateko. Bestalde, gizartean dauden aurriritzi asko okerrak direla esaten digute datuek, hala nola etorkin hauek denak ez dutela inolako hezkuntza mailarik, gizarteari garesti ateratzen zaizkiola...

Hitz bi integrazioaz :

Integrazio hitzaren definizioa ez da batere erraza, nahikoa hitz polisemikoa da. Askorentzat asimilazioa eta integrazioa gauza bera da, hau da, bestea da integratu behar dena guk geuk deus ere egin gabe. Halaz ere, zenbait autore eta adituk (Agustin Unzurrunzagak eta Ignasi Alvarezek kasu) bat egiten dute esatean egun paperik gabeko pertsonak oso zail dutela benetako integrazioa lortzeko gizartean, ez baitute guretzat hain normalak diren gutxiengo eskubiderik: antolaketa, sindikalismoa...

Egungo etorkin hauen integrazioak gizarteko alor guztietan integratzearen bidetik joan beharko luke. Integrazio kulturala eta soziala orekatua behar du izan eta asimilazio politiketatik aldentu.

“El proceso de integración(...)está condenado al fracaso si no existen las condiciones económicas y sociales, o el marco político-legal que lo haga posible.”⁴

² Agustin Unzurrunzaga, SOS Arrazakeria, Udako Euskal Unibertsitatean emandako saioa. 2002

³ (Ignasi Alvarez, 1994, 28.orr.): Michel Wierviorka, “*La gran mutación*”

⁴ Ignasi Alvarez, “*Los retos de la inmigración*” in CONTRERAS, J 1994. *Los retos de la inmigración*. Talasa.39.orr.

2. HISTORIKOKI MIGRAZIOA EUSKAL HERRIAN

Euskal Herria, historian zehar herri migratzailea izan dela ezin ukatu. Nork ez du Ameriketara familiako kiderik, edo ezagunen baten lehengusu edo izeba-osabarik behin hara bitzta berri baten bila eta dirua egitera edo artzain lanak burutzera joan eta bertan gelditu direnik ?

Gaur egun gure herrian jasaten ari garen inmigrazioaren fenomenoak ez da berria. Hala, joan den mendeko datuak ere esanahi handikoak dira, eta gure herria izaten ari zen etorkinen kopurua izugarri handitu zenaren dokumentuak baditugu.

Honenbestez, Carlos Barrena kazetariak emigrazioari buruz 1958.urtean artikulua batzuk idatzi zituen Euskal Herrira iristen ari ziren etorkinekiko aldeko eta errespetuzko jarrera bultzatuz. Hau abiapuntu harturik, *Illunbek Zeruko Argian* etorkinak euskalduntzeko eta “guretzeko” deia zabaltzen die euskal herritarrei.

Artikulu honetan azaltzen denez, 1875-1935 urteen bitartean, Bizkaiko lantegi eta meategieko langileak %436ko proportzioan igo ziren. Datu esanguratsu honek erakusten digu urte horietako industria garapena norainokoa izatera iritsi zen Bizkaia aldean, eta industri garapen honetarako jakina euskaldunek kanpotarren laguntza behar zuten izan. Honela, zenbait herri bizkaitarren datuak oso nabarmenak dira zentsu honetan; 1887.urtean Sestaon adibidez langileen 1096 ziren bizkaitarrak eta 1999 kanpotarrak; Barakaldon, 2593 bertako eta 1988 kanpotar ... e.a.⁵

Honek guztiak urte gutxiren buruan Euskal Herriko zenbait herri jasan zuten biztanleria kopuru (eta mota)ren aldaketa erakusten du. Gizarte berri bat eraikitzen ari zen, industria eta bertakoa ez zen jendea biltzen zuen gizartea alegia.

Honela, joan den mendeko gertakari hau egungo inmigrazio fenomenoarekin alde handiak baditu ere, gurera kanpotar ugari etorri izan direla azpimarratu beharko genuke. Hauek jasotzen zuten tratua eta berenganako jarrera ikusteko, honako garai hartako (1958) testu zatia aurkeztu nahiko genuke, honek nahikoa ongi azaltzen baititu orduan izan zitezkeen hainbat jarrera:

“(…)Gizaixo oiek ondo artu bear ditugu. Beren errian jateko aña ez badute, zer egingo dute, ba? Maite ditzagun. Aldendu erabat guregandik “koreano”, “mono” ta olako itz guztiak. Eman lasai gure itza ta laguntasuna. Itz batean “guretu” egin bear ditugu. Euskaldunak beren alde ateratzen gerala ikustean, beraiek pozik gureganatu, pozik euskaldun berri biurtuko dira.

Ea bada euskaldun! Zintzo jokatu!”⁶

⁵ Ikus informazio gehiagorako ARGIA, Gure Mendea, Ehun urte euskal kulturaren. 1999. 1958 Donostia.”*Etorkinak eta Euskal Herria*” 152.orr

⁶ ibid.:

Ikusi dugunez, etorkinenganako jarrera ezberdinak beti izan dira, baina hauek euskalduntzeko (euskaldun bihurtzeko) nahia ere hor izan dugu beti.

Lehen ikusi bezala, gizabanako edo giza talde baten emigratzeko arrazoiak oso bestelakoak izan daitezke ; ekonomikoak, politikoak, pertsonalak...Euskal komunitatea eta euskal hizkuntzak historian zehar izan dituen arazo, zanpaketa eta prestijio eza guztientzat ezagunak dira. Halaz ere, historian zehar urte eta garai garrantzitsuak izan badira ere euskararen egoera aldatu dutenak, hemen, batez ere 50-60.hamarkadan Euskal Herrian izan zen kanpotarren uholdeak eta industrializazioaren inguruan sortzen ari zen bizitza mota berri batek eragin zuen egoera ikusiko dugu.

Izan ere, industrializazioarekin batera, estatu espainoletik etorritako etorkin kopuru handi samarra gure lurraldean finkatu zen, horrek euskararen egoeran eta ordura arteko gizarte motan ekarri zuen aldaketarekin. Halaberean, hezkuntza sisteman ere aldaketak hasi ziren euskara irakaskuntzan sartu eta lehen ikastolen proiektuak sortu ziren, gero garatu diren ikastolen oinarri izanen direnak.

Ordura arte euskarak ez zuen inolako lekurik izan hezkuntza sisteman, are gehiago, euskara ez erabiltzeaz gain, beraz erabiltzen zutenen kontrako neurriak lotsamangarriak eta guztiz iraingarriak ziren.

“Como consecuencia de la derrota del nacionalismo en la Guerra Civil, el régimen franquista generaliza en los primeros momentos de la posguerra una represión sistemática de todo símbolo nacionalista. La escuela y la calle se convierten en los ámbitos de máxima represión de la lengua.”⁷

Eta honek guztiak etxean eta familia artean ere bere eragina izan zuen, zenbait familiatan euskaraz hitz egitea ez zen begi onez ikusten eta tarteko zenbait belaunaldik euskara galdu ere egin zuten.

Testuinguru honen guztiaren erdian, 50-60.hamarkadan demografikoki garrantzi handiko inmigrazio fenomenoarekin egiten dugu topo.

Hamarkada honetan gertatzen den gizartearen egituraketa aldaketa komunitate osoaren nortasunaren krisia izan zen. Ordura arteko euskal gizarte tradizionala euskal kulturarekin ertsiki loturik zihoan, eta garai honetan batez ere inmigrazioaren etorrerarekin hau kolokan jarriko da.

“La inmigración que ya fue fijada como invasión disruptora en el nacionalismo originario, será al compás del desarrollo industrial una auténtica alteración física de la población potencialmente euskaldun.(...)”⁸

⁷ TEJERINA, Benjamín: “*Lengua e identidad nacional*” in AZURMENDI J. 1998.*Hizkuntza eta talde – nortasuna. Donostiako Udako XII.ikastaroak,1993ko uztaila* EHU.278.orr.

⁸ ibid.287orr.34!!!!!!!!!!!!

Honela, Euskal Herriko industria garapenak kultura eta hizkuntza ezberdinak zekarten etorkinak ekarri zituen, ordura arte euskaldunak ziren herri eta zonaldeetan gaztelania nagusituz.

Testuinguru honetan, euskal hezkuntza baten alde lan egingo duten ikastolak sortuko dira. Ikastolek euskararen, euskal kulturaren eta euskarazko hezkuntzaren sustapenean izan zuten garrantzia inork ez du gaur egun zalantzan jartzen.

Lehen ikastola elebidunaren arrastoak 1903koak dira (Tejerina, 285.orrr.) baina guda osteko lehen ikastola 1957.urtean sortu zen. 1960 eta 1975.urteen artean 160 ikastola sortu ziren, baina hauen garrantzia kopuruaz haratago doa eta batez ere euskal kulturaren erreferentzia izatea eta euskal nortasunaren berpizkundearen erreferente izatean datza.

Garai hau hain justu da etorkin kopuru handi horren bertaratzearen aldia. Etorkin hauetariko asko eta asko bertan gelditu ziren, familia osatu, eta hemen beste kultura bat, hizkuntza bat ere bazela ohartu, eta euren seme-alabak ikastoletara eraman zituzten. Aipatu beharko genuke halaber, ikastolek arlo honetan ere lan eskerga egin zutela, bertako guraso euskaldunetz gain, kanpotik etorritako pertsona hauei bertako kultura, ohitura eta hizkuntzak erakusten izugarritzko ahalegina egin baitzuten. Bigarren (edo hirugarren) belaunaldia diren horietariko asko egun eskaldun osoak ditugu inork ez genuke zalantzan jarriko guztiz integratuak daudenik.

3. EGUNGO EGOERA

Inmigrazioaren fenomenoa ez da berria, gizakiaren historian ezaugarri esanguratsua izan da eta euskaldunak aurreko gizaldietan migratzailaeak izan gara .

Etorkinen gaineko datuak ez dira oso zehatzak. Europan bizi direnen erretratu bat eskaini diezagukete hurrengo datuok⁹:

ALEMANIA	7.315.000
FRANTZIA	3.600.000
ERRESUMA BATUA	2.125.000
BELGIKA	890.000

Lehen aipatu bezala datuok azterritarren kopuru ematen digute, baina ezin dira zehatz-mehatz hartu.

1999ko datuei erreparaturaz, Europara hurbildu ziren etorkin gehienak Alemania, Italia eta Erresuma Batura heldu ziren, etorkinen %70.¹⁰

3.1.-INMIGRAZIOA EUSKAL HERRIAN

Inmigrazioaren argazkia egiteko momentuan datuak hartuko ditugu kontuan. Datuak ez dira inoiz zehatzak, baina gutxi gorabehera errealitatea islatzen dute. Mugitutako argazki bat ematen digute, nahiko zehatzaidea orokor bat egiteko, eboluzioa eta tendentzia ikusteko.¹¹

Iturri desberdinetako datuak erabiliko ditugu: Barne Ministeritza, Egailan, Osakidetza, Gipuzkoako SOS Arrazakeria, Gipuzkoako Caritas, Nafarroako Gobernua.

ESTATUKO DATUAK

1996	538.984
1997	609.813
1998	719.647
1999	801.329
2000	895.720
2002	1.243.919

⁹ ARGIA,1810.alea.2001eko ekainaren 03a.

¹⁰ ibid.

¹¹ Datuok, Agustín Unzurrunzagak, SOS Arrazakeria taldeko kideak Udako Euskal Unibertsitatean emanadako saiotik bildutako informazioa da.

NONGOAK DIRA (ESTATUA 2002-03)

EUROPA BATUA	336.682	%27,06
EUROPA.BESTEAK	106.576	%8,56
AFRIKA	323.705	%26,02
LATINO AMERIKA	364.045	%29,26
IPAR AMERIKA	15.341	%1,26
ASIA	95.188	%7,65
OZEANIA	996	%0,08
APATRIDAK	477	%0,03
BESTEAK	758	%0,06

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA

1996	13.135
1997	15.647
1998	16.995
1999	18.622
2000	18.822
2002	21.299

NONGOAK DIRA (EAEn)

EUROPA BATUA	7.328	%34,4
EUROPAKO BESEAK	1.119	%5,25
AFRIKA	3.885	%18,24
LATINO AMERIKA	6.976	%32,75
IPAR AMERIKA	490	%2,3
ASIA	1.438	%6,75
OZEANIA	55	%0,25
APATRIDAK	4	%0,018
BESTEAK	4	%0,018

NAFARROA (2002-10-ERROLDA)

EUROPA BATUA	2.857	%16,27
EUROPAKO BESTEAK	1.605	%9,14
AFRIKA	4.547	%25,89
LATINO AMERIKA	7.952	%45,29
ASIA	576	%3,28
BESTEAK	20	%

NAFARROA (2002-3.BARNE MINISTERIOA)¹²

EUROPA BATUA	2.811	%21,25
EUROPAKO BESTEAK	976	%7,37
AFRIKA	3.425	%25,89
LATINO AMERIKA	5.509	%41,64
ASIA	336	%2,54
BESTEAK	170	

Datu hauetan ikusten dugunez, gure lurraldera gehien etortzen direnak Europa Batua, Latino Amerika eta Afrikatik hurbildutako pertsonak dira.

Aipatu behar, ikuspegi linguistikotik, latino amerikatik datozen etorkinak direla arazo gutxien dutenak alde honetatik, jakina, gaztelania menperatzen dute eta argi dagoenez, gaztelaniaz ederki moldatzeko inolako arazorik ez dute ez EAEn ezta Nafarroan ere (Iparraldeko kasua alde batera utziko dugu datuak eskuragarri ez ditugulako¹³)

Datu hauek ikusita atzeman daiteke Estatu mailako progresioa oso altua dela, Euskal Herrian aldiz %1-2ko portzentaia da etorkinena, ez da beraz inolaz ere inbasiorik.

Hezkuntzako datuak¹⁴

Hezkuntzaren ikuspegitik, etorkinen fenomenoak aldaketa eta moldaketa ugari ekarriko dituela eta dagoeneko ekartzen ari dela ikus dezakegu. Hainbatetan erabilitako metodologia, didaktika eta lan ildoak berrikusi eta moldatu beharra da behin eta berriz irakasleek aipatzen duten gaia.



Bestalde, soziolinguistikaren ikuspegitik egun hezkuntza ikastetxeetan ditugun ereduak dituzten muga eta arriskuak ere erraz atzeman daitezke. Halaz ere, etorkin hauek eskolan integratzeko zenbait saiakera eta hausnarketa egin dira eta horiek ere aztertuko ditugu. Baina ikus ditzagun lehen-lehenik hezkuntza alorreko datuok:

¹² Nafarroako datu zehatzagoak aztertzeke, ikuslan honetako azken atala.





¹³ Prentsan 7000 etorkin daudela esan bada ere, kopuru hori Pirinio Atlantikoak departamentuari legozkioke, eta ez da batere fidagarria. Izan ere, gure Iparraldeko etorkinen gaineko datuak oso ezberdinak eta anitzak dira; lan eske, asilo politikoa edota ikastera datozen etorkinen datuak. Akitania eskualdean kasu, Espainiako 2000 etorkin inguru daude, hauetako anitz ikasleak direlarik. ARGIA On Line – 1810.alea – 2001eko ekainaren 03a.

¹⁴ STEE_EILASEk 2002an eginiko “*Migrazio politika Hezkuntzaren ikuspegitik*” jasotako informazioa.

ZENBAIT DATU



*Nafarroako (1995-1999) urteetako datuak legeztatutako etorkinen gainean eraturako proiektzioa dira



Ikasleria etorkinaren eskola-integrazioaren giltzarria gaur egun ditugun matrikulazio eta eskolatze irizpidetan datza, gehiengo handi bat ikastetxe eta hizkuntza eredu zehatz batzuetan pilatzera bultzatzen baitu.

Etorkin gehienak ikastetxe publikoetan (%70) eta A ereduetan (%65) – EAEn - edo euskararik gabeko ereduetan Nafarroan ari dira ikasten. EAEn derrigorrezko hezkuntzako 1000 ikastetxe badaude ere, etorkin guztiak 72tan biltzen dira (ikus grafikoa). Honek zenbait ikastetxe eta ikasleak berak getizazio bidean jartzen ditu eta integrazioarako oztopo latza suertatu. STEE_EILASek egindako gogoeta hartzen badugu, egoera honi aurre egiteko ikastetxeetako matrikulaizoa planifikatu eta egoerak egindako zonaldean eskuhartze neurri malguak ezarri beharko lirateke. Eurek aipatutako gertakizun hori azal dezaketzen zenbait arrazoi honakook ditugu:

- Etxebizitza merkeak aurkitzeko aukera, lan eskaintzak eta beraien artean eratutako elkartasun sareak direla-eta, zenbait zonalde eta auzotan ematen den etorkinen pilaketa dakar.
- Horrez gain, esan behar da guraso horiek ez dakitela edo ez dutela jakiten Euskal Herrira iritsi arte hemen hizkuntza bat baino gehiago dagoela eta matrikula egiteko unean A ereduko ikastetxeak aukeratzeko gonbitea jaso ohi dute.
- Eredu elebidunek -B eta D- bigarrenak bereziki izugarritzko gorakada ezagutu dute azken urteotan eta gaur egun EAEn A ereduak bakarrik irauten du elitezko ikastetxe pribatu batzuetan eta ia atzerritarrez bakarrik elikatzen diren eskola publiko batzuetan.
- A ereduko ikastetxe publiko batzuk ahalegin aparta egiten dute haur etorkinak matrikulatzeko ikasle kopuruan izan duten gainbeherari aurre egiteko beste modu bat bezala. Era berean etorkinek ezin dituzte matrikulatu euren seme-alabak A eredua duten elitezko ikastetxe horietan.
- Araba osoan eta Bizkaiko eta Gipuzkoako hiri edota herri handietan atzerritarrak A ereduan matrikulatzen dira eta gehien batean ikastetxe publikoetan. Nafarroan egoera desberdina izanik, antzeko zerbait gertatzen dela esan dezakegu eta haurrak ia modu automatikoan euskara ez duen eskolan matrikulatzen dira.
- Gainera, beste gertakizun deigarri bat ere agertu da gure artean, euskaraz kezkatzen ez ziren talde, familia zenbait haien seme-alabak murgiltze-ereduko ikastetxeetan matrikulatzen hasi dira; seguruenik, atzerritarrekin egon ez daitezen.

Bestalde, murgiltze ereduko zenbait eskolek apustu garbia egin dute atzerritarren seme-alabak matrikulatzeko eta horrek orain arte izandako joera hori hausten lagun dezake.

1982ko Euskararen Erabilera Normalizatzeko Oinarrizko Legeak honako hau dio: *“derrigorrezko heziketa amaitzerakoan ikasleari bermatu behar zaio bi hizkuntza ofizialen ezagupena nahikoa eta erabilera praktikoa bat izateko gaitasuna, beti ere berdintasunean”*. Ukaezina da euskalduntzeari dagokinean eredu sistemak bere emaitzak eman dituela baina era berean aipatu beharra dago ez duela bete ikasleek derrigorrezko heziketaren amaieran bi hizkuntza ofizialetan izan beharko luketen

hizkuntza gaitasuna lortzeko helburua, batez ere A eredukoek. Begi bistakoa da hau giza bazterketarako beste faktore bat dela (STEE_EILAS).

Nafarroari dagokionean, 1986ko Nafarroako Euskararen Legeak dioenez, *“beronen funtsezko helburuak dira euskara ezagutu eta erabiltzeko herritarrek duten eskubidea babestea (...), euskararen berreskuratzea eta garapena babestea Nafarroan (...) eta euskararen erabilera eta irakaskuntza bermatzea pixkanakako eta borondatezko izaeran eta errespetuan oinarrituz, Nafarroako egoera soziolinguistikoari atxikiz”* eta aitortzen duenez *“gaztelania eta euskara Nafarroako berezko hizkuntzak dira eta, beraz, herritar guztiek dute ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea”*. Indarrean jarri zenetik hamabost urte pasa eta gero, lege hau ez da behar bezala garatu eta helburu horiek lortzeko ez da urratsik eman, are gutxiago Nafarroako herritar guztiek ezagutzeko eta erabiltzeko duten eskubidea bermatzeko.

Soziolinguistikaren ikuspegitik arazo zenbait sortzen zaizkigu bai hezkuntzan eta baita hizkuntza normalizazioan ere. Etorkinak hemen bizitzaren beste ardatz edo koordinada batzuetan mugitu eta antolatzen dira, haiek biziraupena eta bizitza duinagoa lortzea dute helburu. Orain arte izugarritzko lana eta lorpenak egin baditugu ere, lan handia dugu egiteke euskara desagertzeko arriskutik kanpo uzteko. Hizkuntza gutxitua den neurrian, lehia aritu behar du inguruan dituen hizkuntza indartsu eta prestigio handikoekin. Euskarak oraino ez du lortu gizarteko funtzio guzietan normalizazio egoki bat eta apurka-apurka lehen ez zituen esparru batzuk bereganatzen ari den arren, funtzio nagusienak erdarak ditu oraindik. Honek, etorkinari euskararen funtzionaltasun eza azaltzen dio eta hizkuntza ikastearekiko motibazioa gutxitu. Honen aurrean, irakaskuntzak duen garrantzia azpimarratu behar dugu, izan ere etorkin horien seme-alabak euskarazko eruedetan matrikulatzeak ondorio zuzena izanen du haur horien euskalduntzean, baina halaberean, euren gurasoen motibazioa areagotu dezake eta hauek euskara ikastera animatu.

Bestalde, irakaskuntzan euskarak garapen handia lortu badu, gizarteak erakutsitako borondate irmoari esker izan da. Eskolak etorkinek dituzten xedeak lortzen lagundu beharko die eta haien seme-alabak zer ikastetxera bidali erabakiko dute jasotzen duten orientazio eta laguntzaren arabera. (STEE_EILAS)

3.2.-KULTUR ANIZTASUNA ETA HIZKUNTZA POLITIKAK¹⁵

Kultur aniztasuna egun giza-arazo eta eztabaida politikoen iturri nagusi bilakatu da. Modernizazio teoria klasikoetatik kontra, giza mugimendu ezberdinek nortasun etnikoa, hizkuntza nortasuna edo erlijioa nola berregituratzen duten ikusi dezakegu. Honek, giza integrazioarako mekanismo demokratikoak proban jartzen ditu. Politika demokratikoek betekizun berri bat dute egun: hizkuntza komunitateen identitatea nola bermatu eta aldi berean hizkuntza talde guztien partaidetza bermatu ingurune publiko berean.

Hizkuntzaren giza funtzioa eta etnizitatearen eraketa

Hizkuntzaren teoria soziologikoen hizkuntza, komunikazio sistema eta errepresentazio sistema gisa definitzen dute. Argi dago pertsonen arteko giza elkarrekintzak komuneko komunikazio sistema eskatzen duela. Bakarra ez den arren, hizkuntza da sistema hauetan beharrezkoena eta horrexegatik giza integrazioarako lagungarri da. Halaberean, ezin ahantz dezakegu hizkuntzak giza talde baten mundu ikuskera isaltzen duela eta beraz, hizkuntzak talde kontzientzian eta talde nortasunearen eraketarako funtsezkoa bihurtzen zaigu. Honenbestez, bere funtzio sinbolikoaren bitartez, hizkuntza giza integrazioarako bidea da.

Egungo estatu-nazioetako hizkuntza gatazka

Orokorrean, estatu-nazio modernoetako historia hizkuntz bakarraren itzalpean garatu dira; estatuak, kultur bakanaren politikak garatuz, hizkuntza industrializazio eta burokratizazioaren pean jartzen zituen. Beraz, hizkuntz bakarraren aldeko sustapena funtzio instrumental eta sinbolikoari zegokin. Baina aldi berean, estatu-nazio modernoek eraketak, hizkuntzaren balio sinbolikoa goraipatu du.

Dinamika honek, hizkuntza talde ez-dominatzaileen diskriminazioa bultzatu du. Normalki, estatuak gutxiengo linguistikoek aurrean hauek desagertarazteko hizkuntza politikekin erantzun izan dute, hala herrialdeko hizkuntza izan nola talde etorkin edo herri indigenak izan.

XIX eta XX. Mendeko Europako hizkuntza taldeen azterketa historikoak azaltzen duenez, nazio moderno hauen erantzun gisa hizkuntza talde minorizatu eta talde etnikoek beren nortasuna baieztatu eta politika mailan beren ezagutarazpena egitea eskatzen dutela. Honela, esate baterako Afrika, India eta Pazifikoko herri kolonizatu osteko artean muga nazionalak jarri ziren lurraldeetako kohesioa kontuan izan gabe. Herrialde hauetan, ama-hizkuntza, nazioarteko hizkuntza eta etnia anitzek topo egiten dute eta hizkuntza bakaneko politikak ezartzeak, hizkuntza taldeen arteko liskarrak sortu izan ditu.

¹⁵ Mattias Köning-en artikulutik hartu eta moldatutako zatia

Globalizazioa eta nortasun etnikoaren berreraikitzea

Globalizazio prozesu berriek, nortasun etnikoen berreraikitze dinamika indartzen ari direla dirudi. Herri indigenek orain arte Europako estatuen sorreran garatu gabe zeuden nazioarteko arauari esker autonomia handiagoa hartzen ari dira estatu-nazioetan. Honela, nortasun nazionalen erlatibizatze honek zenbait nortasunen finkatzea areagotu du. Honen ondorio nagusienetako bat hainbat mugimendu etnopolitikoaren sorrera bultzatu du, nazio, erlijio, arraza edo hizkuntza bat erabiliz nortasun eraikuntza eta mobilizazio politika gisa.

Testuinguru honetan kokatuko dugu egungo hizkuntza politikek duten eronkarik nagusienetako bat: batetik, politika hauei eskatzen zaie hizkuntza aniztasun honen zabalkuntzari eta talde etniko desberdin hauen eskakizunei erantzutea, eta bestetik, estatuko kontzeptuaren deslegitimizazioaren kontestuan ingurune publiko komun bateko egitura instituzionalak sustatu behar dituzte. Horra hor gizarte hizkuntza aniztetako gobernu demokratikoek aurre egin beharreko erronka.

Hizkuntza eskubideak nazioarteko eskubide legedian

Hizkuntza aniztasunari dagokionez, azken hamarkadetan nazioarteko zuzenbidean garapen handia izan da. Garapen hau asimilazioaren tolerantziatik gutxiengo linguistikoaren nortasuna sustatzea helburu dutenak arte daude.

Gutxiengo linguistikoaren egoeraren inguruko lehen araubideak XIX. Mendeko nazioarteko zenbait tratadutan agertzen zaizkigu lehen aldiz I Mundu Gerratearen ostean. Halaz ere, I. Mundu Gerratearen ostean onartuko dira espreski hizkuntz eskubideak giza eskubide unibertsalen baitan Nazio Batuen markoan.

Gutxiengo nortasunak sustatu beharra aitortu zuen lehen deklarazio orokor eta nazioartekoa gutxiengo nazional, etniko, erlijioso eta linguistikoaren partaide direnen Pertsonen Eskubideen Deklarazioak aitortu zuen. Lau hamarkadetan zehar eztabaidetan aritu ondotik Nazio Batuetako Batzar Orokorak 1992an onartu zuen. 1.artikuluaren hain zuzen ere berdintasun eta diskriminazio ezatik haratago doa eta Estatuak derrigorrez gutxiengoaren nortasuna aktiboki babestu eta sustatzearen beharra azpimarratzen du.

4. Artikuluak berriz, hizkuntza gutxitua eta bere hiztunak baztertzen dituen jarrerak debekatzera derrigortzen du estatua horretarako espreski egindako legediaren bitartez.

Deklarazioak argi eta garbi adierazten du estatua derrigortua dagoela jarduera pribatu, publiko eta kolektiboetan hizkuntzaren erabilera baimentzera. Eta gainera, estatuak ezin izanen du hizkuntza gutxitua debekatu biztanleriari zuzenean egokitzen zaizkien jardueretan, batez ere liburu, prentsa edo telebistetan. Azkenik, estatua ekonomikoki laguntzera behartua ez egon arren, ez du hizkuntza gutxitua erabiltzeko oztopoak jarri behar elkarrean sorreran edo eta hizkuntza gutxitua irakasteko hizkuntza gisa erabiltzen den ikastetxe pribatuetan, besteak beste.

Kultur aniztasuneko politiken bidez hizkuntza eskubideak bermatzea

Hizkuntza planifikazioari gagozkiolarik, eta orokorki, hiru hizkuntza politka eredu desberdin atzeman ditzakegu: asimilazionalista, bereizgarria eta kultur aniztasuneko.

Labur bada ere hiru hizkuntza politika hauen ezaugarriak aztertuko ditugu, geroko adibideak hobeki azaltzeko asmoz.

Eredu asimilazionalista hizkuntza bakarraren idealean oinarrituta dago eta helburua gizarteko hizkuntzaren homogeneousazioa du helburu. Nahiz eta hizkuntza gutxituetako komunitateak onartu hizkuntza ofizialak ez direnak mantetzearen kontrako jarrera dute, esaterako eskola publikoetan bakarrik hizkuntza ofizialen eskolak emanez.

Eredu bereizgarriak ere hizkuntza bakarraren ideala du helburu eta sistematikoki hizkuntza gutxituak baztertu egiten ditu. Zenbait kasutan, hizkuntza gutxituko komunitateek beren hizkuntzan instituzio paraleloak sortzeko aukera uzten du, hala nola eskolak, komunikabideak, elkarteak... eredu hau bultzatuz aldiz, gutxiengo komunitate horri gizarteko instituzio nagusietan parte hartzeko aukera ezabatzen da.

Kultur aniztasuneko ereduari, testuinguru publikoan hizkuntza gutxiagotuen parte-hartzearen aldetik, bi alde ditugu. Kultur aniztasunaren alderdi erregionalak, diskriminazio eza, berdintasuna eta hizkuntza gutxiagotuen komunitateen nortasuna sustatzeko lurraldearen azpizatiketak eta federalismoa proposatzen ditu. Aldi berean, hizkuntza gutxiagotuen nortasuna babestu eta sustatu egiten du eta halaber instituzio paraleloak (eskolak, komunikabideak, elkarteak...) sortzeko aukera bermatzen du testuinguru publikoan besteek duten maila berean. Eredu publikoan bideragarritasuna izanen duen komunikazioa bermatzeko, hezkuntzan eta komunikabideetan elebitasuna edo eleaniztasuna bultzatuko du bereziki.

Zenbait hizkuntza politika kultur anitzen azterketa

Egun Europan, Australian edo Kanadan aurkitzen ditugun hizkuntza politika kultur anitzen azterketak azaltzen digunez, nahiz eta baldintza historiko eta tokian tokikoak hizkuntza politka desberdinetako konbinaketa baten eraketa eskatu, hizkuntza aniztasunean oinarritutako gatazka etnikoak modu baketsu batean aurrera eramateko biderik baliagarriena kultur aniztasuna dela agertzen digu. Halaz ere, hizkuntzaren balio instrumentala edo komunikatzeko hizkuntza zabalduago batzuk alde batera uzten baldin badira, hizkuntza gutxitutako komunitatea ekonomikoki, politikoki eta sozialki kaltetuta aterako dela azpimarratu behar dugu.

Hurbil gaitezen zenbait herritako hizkuntza politikak aztertzeraz.

Suitzan eta Belgikan, hizkuntza politika kultur anitza garatzen nahikoa eskarmentu dute. Honela, Suitzako Konstituzioak esate batera, frantsesa, alemaniera eta italiara nazio hizkuntza eta hizkuntza ofizial izendatu ditu eta erretorromanikoa nazio hizkuntza bezala. Hau hala izanik, kantoietako subiranotasun erregimena eraiki du, non hizkuntza komunitate bakoitzak beren eskola publiko, komunikabide...eta abarren jabe den beren kantoietan, eta zenbait klausularen bidez kantoietako barneko norbanakoari bere hizkuntza eskubideak errespetatzen zaizkien. Nazio mailan, araubidean eta administrazioan hizkuntza talde nagusien ordezkaritza eta partaidetza bermatzeko akordioak lortzen dira.

Halere, Suizako ereduaren mugak agerian geratu dira, izan ere, legalki norbanakoaren eskubide eta hizkuntza gutxiagotuen nortasuna uztartzen zailtasun handiak ditu. Gainera, eredu honek desberdintasun ekonomiko eta politikoa areagotu egiten du, ez baitu hizkuntza gutxiagotuen egoera gutxitua kontuan hartzen. Azkenik, hizkuntza taldeen arteko ez-ezagutza ere areagutzen du, nazio mailan giza kohesioa indartuko lukeen hezkuntza hizkuntza-anitzik ez duelako.

Belgikan antzeko ereduak dute baina honen inguruko eztabaida politikoak Konstituzioko berrikuntza erakarri du eta lurraldetasunaren printzipioa autodeterminazio linguistikoarekin konplementatu da. Honela, hiru lurraldeak (Valonia, Flandes eta Bruselas) eta hiru komunitateak (frantsesa, flamenkoa eta alemana) autonomia estatus bat dute eta akordio instituzionalen bidez koordinatzen dira.

Bi eredu hauek azaltzen digute urbanizazioa, gero eta mugikortasun handiagoak eta interdependentzia politikoak hizkuntza eskubideak martxan jartzeko hizkuntza politika kultur anitz hauek dituzten gabeziak agerian uzten dituzte. Gainera, lurraldetasuna oinarri duten hizkuntza politika hauek Europako herri gehienetan handitzen doan etorkin gutxiengoen hizkuntza eskubideak ez dituzte kontuan hartzen.

Etorkinendako Europako hizkuntza politikek eredu asimilazionalista edo bereizgarria jarraitu dute. Zenbait herrialdetako (Belgika, Alemania edo Herberiek kasu) eztabaida publikoak etorkinen hizkuntza nortasuna mantentzearen alde dagoen arren, etorkinaren hizkuntzan hezkuntza jasotzearen alde adibidez, praktikan Europako herri gehienek hezkuntza politikek hizkuntza hauek babestu eta sustatzeko egin dituzten ahaleginak hutsaren hurrengoa dira.

Kultur aniztasuneko hizkuntza politika hauek etorkin eta lurralde gutxituen hizkuntza nortasunaren alde egiten dutenez, etorkin kopuru oso handia duten herriak izan ziren. Kanadan etorkin kopuruaren handitzeak, frantses eta ingelesarekiko politiken kontrako iriztiak sortu dituzte. Hezkuntza alorrean, kultur aniztasuneko hizkuntza politikan ama-hizkuntzan eta nazio hizkuntzan gaitasun egokia jasotzea izan da helburua, eta gauzatu da nazio hizkuntzan eta etorkinen hizkuntzan edo elebitasuneko hezkuntza martxan jarritz.

Kanadan jatorrizko hizkuntza diferenteetako etorkinen giza integrazioa kultur aniztasuneko hizkuntza politikekin indartu den arren, Quebec-eko kasua dugu politika hauek elebitasuneko marko batean garatzearen arazoak argien azaltzen digun kasua. 70eko hamarkadan kultur aniztasuneko hizkuntza politikak onartu ziren eta hauek, frantsesaren posizioa ahuldu eta ingeleraren sustapena ekarri zuen maila handiko hizkuntza bilakatuz eta Quebeceko etorkin zein komunitate etnokulturalei igoera maila ematen zien hizkuntza bilakatuz. Honen aurrean, Quebeceko hizkuntza politikek frantsesarekiko jarrera preferentziala berriz ere areagotu dute gizarte frantses baten ezaugarriak berriz ere azpimarratuz.

Australian berriz, kultur aniztasuna onartzea politika asimilazionalista eta hizkuntza bakarreko zorrotz batetik aborigenen eta hizkuntza jatorri ezberdineko etorkinen hizkuntza eskubideak aitortzera pasatzea zekarren. Jarrera aldaketa honen arrazoi nagusia nazioarteko komertziorako Asiako hizkuntzak izan zitezkeen tresna bilakatzea izan zen. Eta 80ko hamarkadan Australiako politika publikoak ulertu zuen giza integrazioarako gakoa hizkuntza taldeen aldarrikapenak onartzean eta hizkuntza eta kultur aniztasuna sustatzean zetzala.

Halaz ere, 80ko hamarkadan jada ikusten zuten nazio hizkuntza komunikaziorako tresna garrantzitsuena izaten jarraitzen zuela, eta gutxiagotuen nortasuna sustatzeak ekonomia eta politika mailan zeuden desberdintasunak areagotzea ekar zezakeela. Honela, politika publikoa Australian kultur aniztasuneko hizkuntza politika konplexuagoetara jotzen da, hizkuntza gutxituen erabilera sustatu eta halaberean komunikazio zabalagoa duen hizkuntza gaitasuna sustatuz.

Ondorio gisa, kultur aniztasuneko hizkuntza politikak giza eskubideen arauak aktiboki martxan jartzeko eta kolore anitzeko gizarteetan giza integrazioa bultzatzeko tresna gisa balio dute. Politika asimilazionista edo bereizgarriaren parean, kultur aniztasuneko hizkuntza politika gatazka etnolinguistikoak konpontzeko tresna egokiagoa direla dirudi. Politika hauen arrakasta enpirikoa halere, norbanakoaren hizkuntza nortasuna eta sistema ekonomiko eta politiko baten funtzionamendua garatzeko beharrezko baldintzak uztartzean datza.

3.3 HIZKUNTZA KOMUNITATEAREN EGITURAKETA

Gai honen atal gisa hiztun kopuru baten komunitateak duen egituraketa azalduko dugu euskal komunitatea nola egituratzen den eta horren arabera etorkinek izan dezaketen lekua eta garrantzia aztertuz.

Hizkuntz komunitatearen egituraketa hobe ulertzeko, eta euskaldunok (eta edozein komunitatek) osatzen dugun taldea ulertzeko, Jose Maria Sanchez Carrión “Txepetx”en definizioetara joko dugu.

Honela, Txepetxek hizkuntza bat honako faktore nagusi hauengatik ikasten dela adierazten du : motibapena, ezagutza eta erabilpena.¹⁶ Hiru faktore hauek elkar loturik agertzen dira eta hirurak beharrezkoak izango dira hizkuntza horretako hiztun osoa bilakatzeko. Hiru hauetako bakoitza era naturalez edo ikasketen bidezkoa izan daitekeela adierazten du.

Txepetxek A deituko ditu era natural batez hizkuntza jaso duten hiztunak (hautzaroan, erabilera motibazioa eta ezagupenaren transmisioa berezkoa izan denean) eta B, hizkuntza hori era ez natural batez jaso denean, hau da, motibazioa, erabilpena eta ezagutza kanpotik eragindakoak izan badira.¹⁷

Era naturalez hizkuntza jaso baina gero hizkuntza hori ikasi dutenean AB motako hiztunak izango dira, hau da, era natural batez hizkuntza jaso eta gero ikasi egin dutenak. Beste bidea jarraitu duen hiztuna aldiz BA izango da, hau da, ez du berez hizkuntza hori jaso, ikasia da baina nahikoa gaitasuna du hizkuntza horretan. A motako hiztunak jatorrizko hiztunak izango ditugu, B motakoak hizkuntza hori ikasten ari direnak eta \emptyset motakoak hizkuntza ez dakitenak.

Hizkuntza baten egoera osasuntsuena AB motako hiztunez osatutakoa litzateke :


“(…) las condiciones de existencia de una lengua manifiestan una situación equilibrada cuando recibe de sus hablantes una motivación espontánea junto a una motivación racional, una percepción natural junto a una percepción cultural o reflexiva. Y unas funciones informales o naturales junto a unas funciones formales o culturales.”¹⁸

¹⁶ SANCHEZ CARRION, J.M “TXEPETX”, “*Un futuro para nuestro pasado*”, 1991.35.orrr.

¹⁷ ibid.:36-37.orrr.

¹⁸ ibid.: 70.orrr.

Honen arabera, hiztun komunitatea honelako grafikoaren bidez irudikatzen digu Txepetxek.



Hizkuntz komunitatea lehen aipatutako gizabanakoen taldeez osatua dago eta irudian ikusten dugun AB eta BA taldeek Txepetxek deitutako gunen sinbolikoa irudikatuko lukete¹⁹, hau da, hizkuntzaren garapen osoa bermatzen duen hiztun taldea.

“Definimos el espacio simbólico como el núcleo de hablantes que dotan a su lengua de su desarrollo completo. O, correlativamente, el núcleo de hablantes que tiene un desarrollo lingüístico en esa lengua” (ibid.:64.)

Etorkin gehienak Euskal Herrira iristen diren momentuan Ø egoeran aurkitzen dira, hau da, ez dute hiztun komunitate horrekin hizkuntz harremanik eta beraz bertatik kanpo gelditzen dira, ez dute bertan eraginik ezta inolako parte hartzerik ere.

Hizkuntza berri bat ikasteko arazoak eta motibazioak aldiz, nahiko desberdinak ditugu. Kasu askotan, motibazioa sinbolikoa da, hau da, sinbolikoki funtzio komunikatibora heldu daitezke, maila afektiboan nolabaiteko interesa azaltzen dutelako. Bestalde, gizartean, kulturean edo komunitatean integratzeko modu eta behar gisa ere azaltzen zaigu hizkuntza ikastea.

“La necesidad puede convertirse en una motivación simbólica, cuando se trata de una necesidad por aprender el idioma para sentirse integrado en una comunidad y en una cultura, o para integrarse en la vida social y cotidiana del espacio geográfico donde se habita.”²⁰

¹⁹ ibid.:64, 203orr.

²⁰ TEJERINA Benjamin, “Lengua e identidad nacional”, in *Hizkuntza eta talde nortasuna, Donostiako Udako Xii. ikastaroak, 1993ko uztaila* 1998.267-302.orr.

Beraz, etorkinak euskarara hurbiltzeko erakargarria eta aldi berean funtzionaltasun maila bat eskainiko dien hizkuntza batekin egiten dutela topo ikusi beharko dute. Alde honetatik badirudi autore eta aditu gehienek dioten moduan euskal komunitateak eta gizarteak ere ahal duten neurrian pertsona hauenganako hurbilketa saiakera bat egin beharko luketela, etorkin horiei hemengo egoera azaldu eta gero beurek erabaki dezaten, gehienetan ez dute hemengo egoeraren berri, eta informazio eza horrek eramaten ditu besterik gabe erdal hiztun eta ingurunean murgiltzera.

Ondorio gisa, ikusi dugu hiztun komunitate bat nola osatzen den eta bertako protagonistak nor eta zein mailatan parte hartzen duten. Ikusi dugu euskara hizkuntza ez dutenen prozesua zein den hizkuntza komunitateko bihotza eta birika den gune sinboliko horretara iristeko. Halaber, hizkuntza bat ikasteko zer nolako motibazioak izan daitezkeen aipatu ditugu.

4. ZENBAIT EGITASMO ETA HAUSNARKETA

Aurreko guztia kontuan izanik, atal honetan egun bideratzen ari diren zenbait proiektu eta egitasmo azaltzen saiatuko gara. Euskal Herrian gaia berri samarra da, eta beraz, dugun informazioa martxan jarri nahi diren proiektu eta horren inguruko hausnarketak aztertuko ditugu.

Badirudi egokia dela esatea inmigrazioaren fenomeno honen aurrean eskolak, hau da, hezkuntzak duen integraziorako ahalmena handia dela. Etorkinak eta euren seme-alabak bertakotzeko tresna ezinhobea da eskola, eta jakina, gure ikuspuntutik, hau probestu eta euskara eta euskal mundura hurbilduko diren (eta dagoeneko hurbiltzen ari diren) giza talde berriei aurkezteko baliabide ezinhobea dugu.

Hizkuntza, faktore integratzaile nagusienetakoa dela esan dezakegu gaur egungo edozein gizartetan. Gurean, bi hizkuntza ofizial izateak eta zenbait zonaldetan ofizial izatera ere iristen ez den hizkuntza gutxiagotu bat izateak integraziorako eta euskara ikasteko erantsitako oztupoak jartzen dizkigu.

Oztupo hauei erantzuteko, kontuan hartzeko zenbait faktore aipatuko ditugu, eta horietako garrantzitsuenetako bat etorkinaren ingurune soziolinguistikoaren azterketa izanen da.

Egun ikusten ari garen arazo larrienetako bat da gurera etorritako etorkinen seme-alabak nagusiki A ereduan matrikulatu ohi direla, eta gaur egun, eredu hau nahikoa murriztua zegoela esan dezakegu zenbait tokitan. Honek epe ertain eta luzera ekar dezakeen ondorioa nabaria eta kezagarria da, A eredu berriz ere handitzeaz gain, etorkizuneko biztanleriaren zati bat erdalduna izango baita eta euskara eta euskal kulturarekin izango duen harremana hutsaren hurrengoa bilaka daiteke.

Honen aurrean, hezkuntzak badu bere garrantzia, protagonismo handia, baina irakasleek esaten duten moduan, ezin utz dezakegu dena eskolaren esku gizartean sensibilizaziorik eta arazoari ikuspuntu positibo eta integratzailearekin begiratzen ez badiogu. Hortaz, interesgarria da guretzat hezkuntzatik egiten diren asmoen berri jakitea eta aldi berean, sortzen diren arazo guztiei (hizkuntzarena bereziki) nola aurre egiten zaien ikustea.

Hezkuntza

Lehenik eta behin, Euskal Herrian eta hezkuntza alorrean STEE-EILASeko kideek egindako hausnarketa eta ideia interesgarriak azalduko ditugu. Honela, orain ikusiko duguna otsailean “*Migrazio politika Hezkuntzaren ikuspegitik*” prestatutako txostenetik hartutako informazioa izanen da nagusiki. Bertan, hezkuntza alorrean sortzen diren zalantza eta proposatutako metodologiak aztertuko ditugu. Gaiaren konplexutasuna ikusirik, fenomeno hau ahalik eta ikuspegi zabalenetik aztertuko dugu.

4.1. STEE_EILASen proposamen eta hausnarketa

Oinarriak sarrera gisa

Zuzenean hezkuntza alorrean sortzen diren arazoak ikusi aurretik, STEE-EILASeko kideen planteamenduen oinarriak azalduko ditugu.

- STEE_EILASeko kideen oinarri nagusietako bat zera da; edozein atzerritartasun-lege bazterten dute bi pertsona mota daudela onartzea suposatuko lukeelako horrek, batzuk hiritartasunak ematen dituen eskubide guztiekin eta beste batzuk, aldiz, oinarrizko eskubideak murriztuta. Beraz, etorkinak giza talde gisa hartuko ditugu hemendik aurrerako aipamen guztietan beren egoera legala edo administratiboa eta jatorria kontuan izan gabe.
- Helburu nagusia etorkinen benetako integrazioa da, argi utziz horrek ez duela asimilazioa esan nahi. Giza sistema batean integratua egoteak sistema horretan interdependentzia lortzea esan nahi du, asimilatzeak identitatea aldatzea eta beste pertsona bat bihurtzea suposatzen duen bitartean.
- Etorkinen integrazioa beraiei beste guri dagokigu. Integrazioa bien gauza da eta bi aldeak aldatzen eta aberasten ditu. Aniztasun kulturalaren aurrean ez da bideragarria tolerantzia handitzea, aniztasun hori bazterketa legitimatzeko aitzakia moduan ez erabiltzea baizik.
- Atzerritar etorkin ikasleriaren eskolatzea beti ere populazioaren beste sektoreekiko berdintasunean eta dagokien ikastetxeetan gauzatuko da, berariazko arazoei beste guztiei bezala erantzuna emanaz. Dena den, hauen ustez atzerritar ikasleria guztiak ez dauka berariazko laguntza honen beharrik, eta bai aldiz oso era ahulean edo bazterketa arriskuan dagoen ikasleriak.
- Ikasleria etorkinaren eskolatzea eta bere integrazio sozialak zein eskolakoak bitarteko gehiago behar ditu erauzte egoeratan daudenentzat eta elkarbizitza orekatua lortzeko inbertsio sozial moduan. Honetarako, ezinbestekoa da udal erakunde eta sektore sozial guztien lankidetzeta eta koordinazioa.
- Ezinebestekotzat jotzen da etorkinen populazioaren hezkuntza egoeraz zonaldeka eta ikastetxeka diagnostiko bat egitea.
- Era orokor batean beharrezkotzat jotzen dute ikasle etorkinek beste herrialde batzuetan egindako ikasketen konbalidatzea, berau ia ezinezkoa delarik aurrez aldetik herrialde hauekin ez badago itun bat sinatua. Gai honen kompetentzia Estatuarena eta beste inorena ez izateak oztopoak handitu baino ez du egiten.
- Erabat premiazkoak jotzen dute inplikaturako sektore eta erakunde lokalekiko koordinazioa.

Oinarri hauek kontuan izanda, eskolaren inguruko zenbait gogoeta azalduko ditugu.

Honela, azken urteotan eskolako giroa nolakoa izan den aztertzeke garaian zera aipatu dezakegu; 70.hamarkadaren amaiera aldera asko izan ziren berrikuntza pedagogikoaren premia sentitzen zuten irakasleak, eta horri ekin zioten hainbat bide erabiliz. Euskal Herrian berrikuntza premia hori sakonagoa eta iraunkorragoa izan dela esan dezakegu eta hau euskararen eraginez izan da. Euskara irakatsi beharrak, hasierako baliabide eskasiak, euskara bera ikasi beharrak eta horrek guztiak irakasleei sortzen zitzaizkien premiek zeresan handia izan dute dudarik gabe berrikuntza honetan. Erreforma hemengo irakasleen artean nahiko era kritikoa onartu bazen ere, hark eskaintzen zituen proposamen interesgarrienak baliatzeko ahalegin aparta egin da.

Bestalde, irakasleek hezkuntza aldetik bi arazo larriekin topo egiten dutela aipatzen dute: ikasleriaren kontzentrazioa eta hizkuntzen irakaskuntza. Beurek aipatu bezala, egun dauden hizkuntza ereduak ez dute hizkuntza normalizazio honetarako laguntzen, eta etorkin gehien-gehienek A eredura (%65 EAEn) edo euskararik gabeko ereduetan matrikulatzen dituzte euren seme-alabak eta gainera zentro gutxi batzuetan etorkin kopuru handi samarrak sartzen dituzte, honek duen ghetizazio ondorioarekin. STEE_EILASen aspaldidanik dabilta EAeko ereduaren sistemaren inguruan egin beharreko hausnarketa aztertzen, kontsentsu zabal bat bultzatzen, berau gaingaituko duen eredu malguago bat lortzeko asmotan. Halaber, Nafarroan inposatutako zonifikazio artifizialarekin hautsi eta euskararen irakaskuntzarako eskubidea bermatu behar dela azpimarratuz sare publikoan batetik eta unibertsitateaz kanpoko ikasleria osoarentzat euskararen irakaskuntza ezarriz curriculumean bestetik.

Halaber, STEE-EILASen ustez ikasleriaren banaketa orekatuagoa eta era berean ikasleen hizkuntza gaitasuna euskaraz nahiz erdaraz egiazkoa izatea bermatzea ezinbestekoa da. Horretarako, aldi baterako ez dagoen ikasleria euskal ereduaren ikastetxeetan integratzea lortu beharko litzateke. Nafarroan aldiz ikasle etorkinen euskara ezagutu eta erabiltzeko eskubidea bermatu beharko litzatekeela gainontzeko ikasleen baldintza beretan, beharrezkoak diren neurri eta baliabide osagarriak jarritz .

Administrazioak egindakoa aztertzean, aipatu behar dugu Gipuzkoako Diputazioko Heziketa Bereziko Partzuergoak sinatutako hitzarmenari esker ikasle magrebiek eta errusiarrek eta haien familiek ikastetxeekiko harremanetarako orientazio zerbitzu bat dutela. Zerbitzu horretan itzultzailearen laguntza ere badute. Araban, Bizkaian eta Nafarroan ez dago antzeko ezer. Araban harrera ikastetxe batzuk daude gaztelania ez dakiten ikasleei begira. Irakasleek bertan ematen ditzuzte hiru hilabete dagokien ikastetxera joan baino lehen. Bestalde EAeko administrazioa gaia aztertzen ari da eta joan den ikasturtearen amaieratik lurralde bakoitzean etorkinen egoeraz arduratzeko pertsona bat dago. Nafarroan 2000-2001 ikasturtean hasita bi pertsona arduratu dira ikasle etorkinen harreraz eta gaztelaniaren irakaskuntzarako orientabide batzuk ematen dituzte.

Hizkuntzaren irakaskuntza

Ikastetxe guztietan egoera desberdina da eta batzuetan ikasleen ama-hizkuntzaren inguruan erakusten duten sentsibilitatea hutsaren hurrengo dela esan daiteke.

Bestalde, administrazioaren partetik ez dago orientabiderik hizkuntzen trataera dela eta, hortaz, inprobisazioa da nagusi.

A ereduak edo euskararik gabeko ikastetxeek gaztelaniako murgiltze eredu bezala egiten dute haien lana gehien batean haurrak txikiak direnean (Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntzako lehenengo zikloa). Kasu horietan, irakasleen prestakuntza eza dela eta, murgiltzea baino zerbait latzago gertatu ohi da eta jatorrizko hizkuntzak gaztelaniarekin lehian aritu behar du, ondorioak oso txarrak izaten direlarik.

Zenbait ikastetxeetan, ordea, ikasle horrek zenbait ordu ematen ditu irakasleren batekin (Aholkularia, Heziketa berezikoa...) kalean edo gelan erabili beharko duen hizkuntzan gutxieneko trebakuntza lortzeko.

B eta D ereduak zenbait ikastetxetan trebakuntza hori gaztelaniaz egiten da, hori baita kalera ateratzen denean ikasleak erabili beharko duen hizkuntza. Beste ikastetxe batzuetan aldiz kaleko hizkuntza euskara dela kontuan izanik, lehendabiziko trebakuntza hori euskaraz egiten dute.

Nolanahi ere, banakako trebakuntza horrek iraupen motza du, honek dakarren ondorio guztiakin. Ikasleak gutxiengo trebetasunak hartzen dituenean amaitutzat jotzen da lan hori, eta gainera, banakako trataera jasotzen duten ikasle horiek gero gela arruntetan ematen dituzte ordu gehienak eta irakasleek ahal duten moduan moldatu beharra daukate.

Oso ikastetxe gutxitan dago plangintza orokor bat ikastetxe guztiari eragiten diona eta ikasle horien jarraipena bermatzen duena. Ikasle hauekin gelan bi irakasle izateko aukera eskaintzen duten ikastetxeak ere salbuespen dira.

STEE_EILASeko kideek bi giltzarriren inguruan egiten dute beren proposamena: kulturarteko hezkuntza eta hizkuntzen trataera.

1. Kulturarteko hezkuntza

Nahiz eta hezkuntzak izan dezakeen eragina nahikoa mugatua izan, irizpide hauek kontuan hartuko dituen kulturarteko hezkuntza ezartzea eta bultzatzea proposatzen dute:

- Kulturarteko hezkuntzak hezkuntza sistema osora heldu behar du eta ez ikasleria etorkina duten ikastetxeetara bakarrik.
- Denok gara kulturarteko hezkuntzaren eragile, era guzietara hemen gaudenok kanpotik datozenak baino gehiago hala ere. Ikastetxe berean elkarrekin bizi diren kultura desberdinei buruzko edukiak txertatu beharko dira ikasleria osoaren ohiko curriculumean, beti ere, jarrera folklorista eta paternalistak saihestuz.
- Etapa eta arlo guztietan denon berdintasuna desberdintasuna baino gehiago bultzatuko duen jarrerak eta usteak landu behar dira: berdinak duintasunean eta eskubideetan, elkartasuna eta giza bazterketaren aurkako norberaren inplikaizoa areagotuz.
- Guztiz beharrezkoa da norberaren abileziak eta giza trebetasunak garatzea elkarbizitzak sor ditzakeen ohiko gatrakak bideratzeko.
- Ezin dira alde batera utzi jatorrizko hizkuntzen eta kulturaren irakaskuntza.

2. Hizkuntzen trataera:

- Hizkuntzaren ikaskuntzak **osagai afektibo-emozionalak** jokoan jartzea eskatzen du. Bigarren hizkuntza bat ikasteko, are gehiago, bigarren kultura batean murgiltzea suposatzen badu osagai afektibo-emozionalak izugarri garrantzitsuak dira. Hortaz, planteatzen zaigun erronka hau irabazi nahi badugu ikasleak afektiboki irabazi egin behar ditugu: seguru sentitu behar dute, haiek duten kultura eta dakitena baloratuta.
- Aurrekoarekin lotuta, oso garrantzitsua da familiei **haien hizkuntza erabili eta lantzeko** aholkua ematea. Kontuan izan behar dugu hizkuntza bat aurretiaz dakigunaren gainean eraikitzen dela, hortaz ikasleak jatorrizko hizkuntza aberatsa eta esanguratsua badu, errazagoa egingo zaio bigarren hizkuntza ikastea. Horretaz gain, bere hizkuntza eta errealitatea baloratzeak bigarren hizkuntzarekiko jarrera hobea izaten lagunduko dio. Badira honekin lotuta egon daitezkeen zenbait ekintza: gelan ikasleen hizkuntza ezberdinen erreferentziak izatea (hobe ikasleek eurek egin badituzte edo egiten lagundu badute), hizkuntza horiek dakiten pertsonak eskolatik hurbil izatea, jatorrizko hizkuntzen klaseak antolatzea orduz kanpo...

- Ikasleak dakienetik abiatu behar dugu beti. Horretarako harrera jardunbidean edo behin gelara iritsi denean ikaslearen trebetasunaren berri izaten saiatuko gara. Honek ikas bakoitzaren premietara egokitzea dakar. Hizkuntza eta jakite aldetik oso maila ezberdinak dituzten ikasleen taldetan lan egiteak ahalegin aparta eskatzen dio irakasleari eta bati baina gehiagori talde kudeaketarako prestakuntza berezia, baina ezinbestekoa. Oso lagungarria gerta daiteke ikasleak bere hizkuntzan idazten jakitea. Hala ere, hori behar bezala baliatzeak irakasleari ikaslearen hizkuntza-sistemaren nolabaiteko ezagutza eskatuko dio.
- Etorकिन benetako integrazioa nahi badugu, Euskal Herrian ikastetxe elebidunetan eskolatzen ahalegindu beharko dugu. Bi hizkuntza ofizialen irakaskuntza nola gauzatu erabakitzekeo zenbait osagai hartu beharko ditugu kontuan (adina, eskolako eta herriko egoera soziolinguistikoa, hizkuntzen ezagupena, zenbat denboraz eta zer baldintzatan egon den eskolatua, etxeko hizkuntza ezagupena...) bestalde, kontuan hartu beharko dugu kasu hauetan bi hizkuntzen jarraipena egin beharko dela denbora luzez.
- Eskolako **hizkuntza ezagumendu interesgarriekin lotuta** agertu behar da. Kontuan hartuta ikasleen arteko komunikazioak aparteko garrantzia izango duela hizkuntzaren garapenean, gelan lanerako dugun antolamenduak komunikazio hori bultzatzeko lagungarria izan dadin saiatu behar dugu (lana proiektuetan, zereginetan, txokoetan antolatuta). Lana horrela antolatzeak – eta ez beti irakaslea erreferentzia izanda- komunikazio giroa goxotzeaz gain, komunikazio egoerak ugartu egiten ditu.

STEE_EILASeko kideek hezkuntzan bultzatu beharreko neurriak proposatzen dituzte, eta horien barruan hizkuntzekin zuzenean ere harremana dutenak.

1- Derrigorrezko etapa

1.1. Matrikulazioa

Kontuan izanda ikasle etorkinen konzentrazio erabat ezohikoa gertatzen dela ikastetxe gutxi batzuetan ezinbestekoa da neurriak hartzea ikasle horien banaketa ikastetxe publiko eta kontzertatuetan askoz orekatuagoa izan dadin.

Ikastetxe, sindikatu eta etorkinen inguruan lanean diharduten elkarteak Hezkuntza Administrazioarekin batera abian jarri beharko lituzkete matrikulazio batzordeak. Batzorde hauek iraunkorrak izan beharko liriateke, martxan egongo liriateke ikasturtean zehar, eta ikasleria osoa zonalde edo herri bateko ikastetxe desberdinetan matrikulatzeko irizpideak ezarriko lituzkete, beti ere honako hauek kontuan hartuz:

- Ikasleriaren matrikulazioa bizi den udalerrian bertan.
- Ikastetxeen arteko oreka
- Ikasle eta familiei Hezkuntza Sistemari buruzko ahalik eta informaziorik zehatzena eta modurik argienean emateko baliabideak izango ditu. Material horiek bi hizkuntza ofizialetan egoteaz gain, etorkinentzat lagungarri gerta litezkeen gainerako hizkuntzetan ere argitaratuko dira.
- Ikastetxea eta bere inguruaren egoeratik abiatuz etorkin ikasleriarentzako leku batzuk gorde beharko liriateke bai geletan, bai ikastetxetan.
- Ikastetxera berandu heltzen den ikasleriarentzako leku erreserbak
- Ezarri beharko litzateke malgutasun handiz gela edo ikastetxe bakoitzean hezkuntza premia bereziko ikasleriaren eta etorkinen ehuneko gehiengoaren zenbatekoa izango den.

- Ikastetxe bakoitzak dituen benetako beharrak asetuko dituen baliabideen horniduraren banaketa.
- Behin ikasturtea hasita iristen diren ikasleen eskolaratzea ahalik eta azkarren burutuko da.

1.2. Harrera planak

- Ikastetxe bakoitzean pertsona edo talde bat (beti ere zenbakiaren arabera) izango da ikasleria honentzako erreferente iraunkorra, beti ere klaustroko beste kideen inplikazioarekin.
- Ikaslearen hasierako diagnostikoa: egoera pertsonala eta familiarra, komunikatzeko gaitasuna, ikasketa maila...e.a. Batzorde honek jakin beharko du ikasle atzerritar guztiek ez dituztela behar berdinak. Kontuan hartu beharko ditu, beste batzuen artean, ikaslearen hizkuntzaren ezagutza maila, lehendik duen ikasketa maila eta hezkuntza premia bereziak dituen ala ez.
- Behar berri hauen arabera ikasleen ratioa gelako zein irakasleena ikastetxeko aldatu beharko dira.
- Beharrezko baliabideak eta langileria gaitua eta sentsibilizatua: itzultzaileak, hizkuntza-komunitate horietako hezitzaile laguntzaileak, gizarte langileak...e.a. ikastetxeekin eta erakundeekin koordinazioan lan egingo dutenak, irizpide pedagogiko komunak ezarriz.
- Matrikulazio batzordeek eta ikastetxe bakoitzak – nahiz eta une horretan ikasle etorkinik ez izan – harrera-jardunbide bat izango dute. Jardunbide horren helburua ikasle bakoitzarentzat harrera plan bat zehaztea izango da eta horretarako ikasleari buruzko oinarritzko infomazioa jasotzeko txostenak eta abarrekoak izango ditu. Horrez gain, ikasleari edota familiari informazioa modurik zehatz eta ulergarrienean emango die.
- Hezkuntza Sailak harrera jardunbide hori – lehendabiziko hartu-emanak, eskolatzeko prozesuaren jarraipena, familiekiko harremanak – modu egokian gauzatzeko behar diren baliabideak (itzultzaileak, gizarte laguntzaileak...) eskainiko dizkie ikastetxeei. Horretarako behar diren hitzarmenak gauzatuko ditu beste erakunde eta Administrazio beraren beste atal batzuekin.
- Irakasleek nahikoa baliabide eta denbora izango dute ikasleei harrera planak zehazten duen arreta eta trataera eskaintzeko.
- Kontuan hartuta ikastetxe bakoitzak behar dituen baliabideaz hornitzeak dituen zailtasunak behin-behineko neurri hauek proposatzen ditugu:
 - harrera-guneak sortzea zonaldeka Lehen eta Bigarren Hezkuntzako gelak izango dituenak hizkuntzan trebatzeko eta gerora eskolatzeko arrunta eta bidenabar giza integrazioa erraztuko diona. Ikastetxe hauek aldi baterako izango dira, ikasleak dagokien geletan eskolatu aurretik eta eskolan dauden bitartean.
 - Talde ibiltariak sortzea ikaslerariaren jarraipena egingo duena ikastetxean bertan eta kasu bakoitzean tokian tokiko beharrezko laguntza emango duena.

1.3. Ikastetxe proiektuak

Ikastetxeetako proiektuetan atal berezi bat txertatu “Kulturarteko Heziketaren Plangintza” deiturikoa, berdintasunerako hezkuntza estrategiaren ildotik enpatia eta besteekiko identifikazio jarrerak lortzen saiatuko dena.

Curriculum-arloak: ikastetxe berean elkarrekin bizi diren kulturei buruzko edukiak txertatu ohiko curriculumean.

1.4. Hizkuntzen trataera

- Kontuan izanda hizkuntza integrazioarako tresnarik garrantzitsuena dela eta gure gizarteak euskararen aldeko apustua egin duela, etorkinak matrikulatzerakoan ikasleek bi hizkuntza ofizialetan trebatzea izango du helburu eskolak.
- Ikaslearean hizkuntza-irakaskuntza prozeduran ikaslearen eta bere familiaren integrazioari emango zaio lehentasuna. Hori zehazteko honako hauek hartu beharko ditugu kontuan:
 - adina
 - eskolako eta herriko egoera soziolinguistikoa
 - hizkuntzen ezagupena (zein hizkuntza ezagutzen dituen, zeinetan aritzen den etxean, zeinetan dakien idazten, alfabetatua dagoen ala ez)
 - zenbat denbora eta zein baldintzatan egon den eskolatua
 - etxekoen hizkuntza ezagupena
- Ikasle hauek gutxienez Lehen Hezkuntza amaitu arte izango dute beren hizkuntza garapenaren jarraipena eta behar denetan banakako laguntza jasoko dute.
- Ikastetxeak nahikoa baliabide izango du ikasle hauen hizkuntza ikaskuntza prozedura eta horren jarraipena bermatzeko.
- Ikastetxearen lan orduen banaketa antolatzerakoan ikasle hauen hizkuntza premiak lehentasunen barruan hartuko dira kontuan
- Beste ama-hizkuntzak: hizkuntza bereko ikasleria handia bada ikastetxe edo zonalde batean, ikasle hauen hizkuntza edo hizkuntzak ezagutzen dituen irakasle laguntzaile bat egon beharko da, beti ere hizkuntza arloan laguntza emanaz eta ahal izanez gero ikaslearen komunitate berekoa.
- Beste ama hizkuntzen presentzia handia bada ikastetxe batean, berauek trataera normalizatu bat jasoko dutela bermatu beharra dago, bai eskolaz kanpoko jarduera moduan ikasleria osoa zabalik egongo dena edo bai Bigarren Hezkuntzako aukerazko bezala, administrazioa honen kargu eginaz.

1.5. Aniztasunaren trataera

- Lehendabizi pentsatu behar dugu ikasleak etorkina izateagatik ez duela trataera berezirik behar. Hala ere, egongo dira seguruenik eskola helburuak lortzeko zailtasunak dituzten ikasleak eta banakako trataera behar dutenak.
- Hortaz, gainerako ikasleekin bezala ikastetxeek curriculuma ikasle etorkinen gaitasun eta beharretara egokitzeko baliabideak izango dituzte.
- Aniztasunaren trataerak ikasleak haien taldeetan normaltasunez integratzea, ikaskideekiko adin aldea ahalik eta txikiena izatea eta ikasleen curriculum gaitasuna eta erreferentzia-taldearen ahalik eta parekatuenak izatea bideratzen lagunduko du.

1.6. Aldi baterako egonaldian dagoen ikasleria

- Eskolatze batzordeek aldi baterako ikasleriaren beharrak asetuko dituen baliabideen banaketa eta irizpideak ezarriko dituzte.

- Inguruko ikastetxeetan eskolatuko dituzte
- Tokian tokiko “tenporeroak” kontratatzen dituztenen laguntza eskatuko da beharrezko baliabideak lortzeko: itzultzaileak, irakasle laguntzaileak, gizalangileak, hezitzaile soziokulturalak, jantokiko laguntzaileak...e.a.
- Beraien heziketa beharrak eta bizitza baldintzak giza integrazioarekin batera baloratuko dira.
- Harrerako populazioari zuzendutako sentsibilizazio kanpaina planifikatuak eta iraunkorrak antolatuko dira.

1.7 Adin txikiko tutelatuen eskolatzea

- Beste adin txikiko etorkin atzerritarrek dituzten baldintza berberetan eskolatu beharko lirateke, beraien egoera berezia, bai norberarena zein gizartekoarena kontuan hartuko dituen beharrezko baliabide guztiekin.

2- Ez derrigorrezko etapa.

- Ikasle hauek ez derrigorrezko hezkuntzan ohiko jarraipena izango dute orientazio eta tutoretza organoen bidez bestelako ikasketekin jarraitzeko gaitasuna dutenei horretara animatuz eta behar lituzketen baliabideak (dirulaguntzak, informazioa, bestelako laguntzak...) eskura jarritz.

2.1. Lanerako Hezkuntza eta LHIK

- Pertsona inmigrante guztiek, bere egoera legala kontuan hartu gabe, aukera izango dute parte hartzeko LHKIetan dauden programa guzietan Lanerako Hezkuntza eta Hezkuntza Iraunkorra – enpresetako praktikak barne -.
- Ikastaroetan hezitzaile soziala edo bitartekari kulturalak kontuan hartuko dira, hizkuntza gaitasuna eskuratzeko behar adinako baliabideekin.
- Ikastaro bakoitzeko esparru laborala ikertu, gaitasun profesionala eskaini ahal izateko.
- 16-18 bitarteko ikasleentzako LHIKek (CIP edo PIP direlakoak) lan munduratzea bermatu behar dute. Ikastaroen iraupena bi urtera luzatzeaz gain “arlotu komuna” indartu behar da bereziki, giza integrazioa errazten baitu.

2.2. Helduen Hezkuntza Iraunkorra

Pertsona inmigrante helduentzat programa berezia martxan jarri, diskriminazioa, marjinazioa eta gizarte baztertearen kontrako borrokan, pertsona hauei tresna kulturalak, sozialak eta laboralak hornitzen dizkiena.

- Prozesu honetan hizkuntzaren irakaskuntzan izugarriko garrantzia du, bere inguruarekin komunikatzeko tresna denari lehentasuna eman behar zaiolarik.
- Programak ikaslearekin zerkusia duten aspektu oro (harrera, matrikulazioa, lan munduratzeko orientazio akademikoa) pertsona inmigranteekin lan egiten duten

beste erakunde nahiz gizarte eragileekin koordinazioa – inmigranteen elkarteak barne – eta HHIeko ikasleriaren sentsibilizazioa hartu beharko dira kontuan.

- Matrikulaziorako berezko kanpainak egingo dira. Lehentasuna, dagoeneko jardueran dauden dauden HHIko taldeetan sartzeari emango zaio, batzuetan talde espezifikoak sortzea egokiagoa izan arren.
- Emakume etorkinen egoera ahularen aurrean egitasmo bereziak sortu, laguntza integrala bideratuz, norberaren egoera familiar, kultural eta laboraletik abiatuta.
- Hezkuntza zerbitzuak ikasleriaren beharren arabera eskaini, ordutegiak kontuan hartuta eta behar izatekotan oporraldiak beteko direlarik.
- Eskola orduetatik kanpo, ikasle etorkinen kopuru nahikoa duten Lehen Hezkuntzako ikastetxeetako aretoak erabili ikasle horien gurasoei HHIko ikastaroak eskaini ahal izateko.

Irakasleriaren prestakuntza

Ezohiko baliabideak behar dituen elementu nagusi bat da. Prestakuntza prozesuak bultzatu beharko dira bi fasetan:

- a) Lehena eta presa gehien duena (hezkuntza maila guztietan):
 - talde eta harrera batzordeentzako
 - atzeritar ikasleekin zuzeneko irakaskuntza duten irakasleentzat
- b) Bigarren aldia (irakasleria osoarentzako ikastetxean bertan)
 - populazio etorkinaren ezaugarri eta arazo soziokulturalaren ulermena landuz eta bazterketari aurre egiteko hezkuntza-estrategiak barneratuz.
 - bigarren hizkuntzen irakaskuntzarako metodologian prestakuntza, batez ere euskarari eta gaztelarari.
 - hizkuntzen irakaskuntzarako materialak eratzeko prestakuntza
 - hasierako prestakuntzari dagokionez, Irakasleen Prestakuntzarako Eskolak aniztasun kulturala eta giza bazterketarekin zerikusia duten arazoak bideratzeko baliabideei buruzko kreditu bereziak eratu beharko lituzkete.
- c) urtero irakasleen prestakuntzarako antolatu ohi diren jarduera eta programetan aniztasun kulturalari erantzuteko eta giza harremanetarako baliabideak hobetzeko ikastaroak izango dira.
- d) Unibertsitatearen ikasketa plangintzetan
 - bazterketa soziala eta kultur aniztasunean trebatutako irakasleentzako kreditu bereziak ezarriko dira.
 - etorkinek erabili ohi dituzten hizkuntzen itzulpen eta interpretaziorako ikasketak ezarriko dira.
 - era berean, errealitate ezberdin horiei buruzko ikerketa bultzatuko da, Administrazioaren atal ezberdinen arteko koordinazioa bideratuz.

Bestelakoak

- Kontuan izanda ikasle hauek askotan ikasturtea behin hasita etortzen direla, Hekuntza Sailak errealitate hori aurreikusia izango du ikastetxeei ikasturtean zehar sor dakizkiekeen baliabide premiei erantzuteko.
 - ikastetxearen langileak direla eta: irakasle edo ez irakasle gehiagoren beharra.
 - Garraio zein jantokietako plazak edota laguntzaileak, begiraleak...
 - Ikasle hauek izan ditzaketen bestelako behar arruntak edo ezohikoak
- Tokian tokiko erakundeekin batera ikastetxeak hezitzaileekin, laguntzaileekin, itzultzaileekin, hezitzaile soziokulturalekin, gizarte langileekin, bitartekari sozialekin...hornitu.
- Jatorrizko kulturaren edota hizkuntzan gaitasuna duen pertsonalari Hezkuntza sisteman sartzeko bidea eman, horretarako tituluen konbalidazioak erraztuz.
- Bere jatorrizko hizkuntza menperatzen duten ikasleentzat Hizkuntza Eskola Ofizialetan titulatzeko erraztasunak ematea
- Irakasle titulua duten pertsona inmigranteen irakaslea izateko ikasketak konbalidatu
- Baliabide materialak
 - ikastetxe guztietan beste herri batzuen berri – kokapen geografikoa, erabiltzen diren hizkuntzak, erlijioak, ohiturak – ematen duen material hautatua izango da.
 - ikastetxe guztietan nahikoa bibliografia eta baliabide egokiak izango dira etorkinei bi hizkuntza ofizialak irakasteko.
 - Berritzeguneetan ikastetxeetan baino baliabide ugariagoak eta berariazkoak izango dira.

4.2. SORTZEN-IKASBATUAZ-en egitasmoa²¹

Elkarte honetatik ere etorkinen inguruko afera lantzen hasi dira, eta hemen bereziki Nafarroan (Iruñerrian) egindako esperientzia xume baten berri emango dugu. Elkartek honek egin duen lana batez ere etorkinei D ereduaren berri ematea izan da. Lehen aipatu dugun moduan, etorkin gehien-gehienak Euskal Herrira iristen direnean ez dute bertako egoera kultural eta soziolinguistikoaren berri izaten, eta are gutxiago eskoletako eredu eta dugun hezkuntza sistemaren berri. Beraz, elkarte honen lan eremua euskal hezkuntza izanik, horretara bideratu zuten euren lana.

Batez ere hiru arrazoi hauek eraman zituzten halako egitasmoa bidean jartzeko:

- Egunak joan egunak etorri gero eta etorkin gehiago ikusten ditugu gure herri eta hiriburuetakoko kaleetan zehar, eta giza talde hau euskarara eta euskal kulturara hubiltzea beharrezkoa jotzen zuten.
- Etorkin hauei, Gobernutik zein beste erakunde batzuetatik ematen zaien informazioa oso eskasa da eta hezkuntza alorrean, G ereduko (erdarazko irakaskuntza euskara irakasgairik gabe) informazioa jasotzen dute soil-soilik. Honek ondorio latzak dakartza euskal irakaskuntzarako eta zenbait kasutan G eredia ia desagerturik zegoen tokitan berriz ere eredu hau indartzea ekarri du.(Irurtzun adbz.)
- Egun bi hizkuntzak beharrezkoak direla gizartean benetan integratzeko.

Egitasmo hau Nafarroan – Iruñerria mailan – burutu denez, Nafarroako egoera hurbilagotik aztertuko asmoz zenbait datu²² ikusiko ditugu.

Europar Batasunetik kanpoko etorkinen kopurua (15.000 pertsona inguru; alegia, Komunitateko biztanleriaren %2,8, gutxi gorabehera) eta Nafarroako populazioan duen pisua lau aldiz biderkatu da 1997tik 2000ra bitartean. Beranduagoko datuek adierazten dute Nafarroan 20.000 etorkin baino gehiago daudela. Horietatik erdia baino pixka bat gehiago latinoamerikarrak ziren, eta laurdena baino gehixago magrebtarrak ziren. Nafarroan erroldaturiko herritar-kopururik handiena duen herria Ekuador da. Kopuru hori asko hazi da azken urteotan. Latinoamerikako bi herrik (Ekuador eta Kolonbia) eta Magrebeko beste bik (Maroko eta Algeria) Nafarroan mila herritar baino gehiago erroldaturik dauzkate bakoitzak.

2000ko erdialdean Europako Ekialdeko inmigratzaileen etorrerak gorakada izan zuen, Magrebeko inmigratzaileak gero eta ugariagoak ziren, eta Latinoamerikako inmigratzaileen kopuruak ere gora egin zuen. Joera horren gorakada, ia bertikala, 1999ko hasieran hasi zen.

²¹ Sortzen-Ikasbatuaz Euskal Eskola Publiko Berriaren aldeko elkarte da, bertan ikastetxeetako zenbait guraso talde eta irakaslek hatzen dute parte.

²² Nafarroako Parlamentuko A.O./V.legegintzaldia, 27.zk/2002ko martxoaren15a. NUPeko txostena.2001.9.orr.

Iruñak eta Tuterak eta Tafallako eskualdeek agertzen duten inmigratzaile-proporzioa batez bestekoa baino pixka bat handiagoa da. Nazionalitate bakoitzekoak modu ezberdinean daude lurraldean barreiatuta. Horrela, magrebtarretatik gehienak Erriberan daude, eta latinoamerikarrak, ekialdeko europarrak eta gainerako afrikarrak nagusiki Iruñean eta Iruñerrian bizi dira.²³

ERROLDATURIKO ATZERRITARRAK ²⁴
2000KO IRAILA-URRIA Herri-talde handiak

	Guztira	Iruñerria
Latinoamerika	7.952	5014
Magreb	3.809	764
Afrikako gainontzekoa	738	523
Ekialdeko Europa	1375	885
Asia	576	274

Iruñerrian dauden gehienak, latinoamerikarrak dira beraz, baina hauek gaztelania menperatzen dutenez hizkuntza berri bat ikastera hurbiltzea zailagoa da, gaztelaniarekin aski ongi moldatzen baitira eguneroko bizitzan.

Antza, Iruñerrian dauden etorkinen %80k bertan gelditzeko asmoa agertu dute eta gainera %78k familia ekarri du edo ekartzeko asmoa du.²⁵

Sorzen –Ikasbatuak-ek datu hauek denak bildu eta etorkin talde hauen elkarteera jo zuen. Guztiek ez baina batzuek beren elkarte propioak dituzte edo bestela SOS Arrazakeria edo ANAFE bezalako elkarteetara jotzen dute, beraz hauetan guztietan informazio orri batzuk utzi zituzten. Horiek, Iruñerriko etorkin taldeak ikusita, euskaraz gaztelaniaz, frantsesez, ingeleraz eta arabieraz moldatu zituzten. Hauetan, mezu positiboak zabaltzen ziren; euskararen aurkezpen xumea, euskara ikasteak duen erabilgarritasuna gizarte mailan, ingelera ere ikasten dela ohartarazi (hau baita beuren kezka nagusietako bat), bi hizkuntza ikastearen alde onak, eta D ereduko ikastetxeak non aurki zitzaketen azpimarratzen zuten.

Honetaz gain, eskola kontseilutik bideratzeko idazki bat ere prestatu zuten eta bertan, bai eskolan bai guraso elkarteetan kultur aniztasuna lantzeko proposamena egin zen.

²³ “Nafarroako Erriberako Plan Estrategikoaren zabalkuntza. Inmigrazio Batzordea” izeneko txostena. Nafarroako Erriberako EDER patzuergoa in Nafarroako Parlamentuko A.O./V. legegintzaldia, 27.zk/2002ko martxoaren 15a.9.orr.

²⁴ NUPeko txostena.2001.

²⁵ Sorzen-Ikasbatuaz-ek luzatutako informazioa.

Jaso zituzten jarrerak:

Etorkinen aldetik jarrera positiboa jaso zuen, baina beuren lehentasunak beste batzuk dira; etxea, lana aurkitzea...eta kezka nagusiak erlijioaren eta menuaren ingurukoak izan ziren. Gainera, talde nortasun handiagoa duten etorkinengan jarrera hobeia izan zutela aipatzen dute (magrebiarrak kasu).

Bestalde, gizartean oso barneraturik ditugun zenbait aurreiritzi ere jaso zituzten; etorkinek arazoak dakartzate...

Emaitzak aztertzeko garaian, oraindik ere lana dutela aipatzen dute baina zenbait ikastetxeetan haur etorkinak matrikulatu dira: Barañain, Hegoalden...baina nahiko gutxi.

Ikusi diren zenbait arazo:

- Pedagogikoki, kanpaina hau 3-4 urte bitarteko haurrak matrikulatzeko bideratua da, adin honetako umeen euskarazko hezkuntza errazagoa da. Baina arazo larriena 6-7 edota 12-13 urte dituzten seme-alabak ekartzen dituztenean sortzen dira, orduan, A edo G reduan sartu behar baitituzte.
- Arriskua; zonalde euskaldunean berriz ere A eredia bultzatu eta garatzeko arrisku larria.
- Koordinazio falta; ez dago ikastetxeen arteko koordinaziorik, kohesioa falta da eta beraz bakoitzak bere kasa funtzionatzen du.

Hurrengo urteetarako aurreikusten duten lana:

- Kanpaina auzoz auzo egitea eta gurasoekin harreman zuzena egitea (herri ta auzoetako plazetan...)
- Haien elkarteetan hitzaldiak antolatzea elebitasunaren inguruan.
- Beste etorkin talde batzuekin harremanetan jartzea
- Eskolaz kanpoko jardueretan esku hartze edo interbentzioak proposatzea

Gurasoak ere euskarara hubiltzea. kontaktu zuzena izateaz gain guraso etorkinekin, bertako gurasoekin kulturen elkar trukitzea bideratzea.

4.3. KATALUNIAKO ESPERIENZIA IRAKASKUNTZAN ERROMANIKOAK EZ DIREN HIZKUNTZETAKO GAZTEEKIN²⁶

Atal honetan, Kataluniako esperientzia bat aipatu nahi izan dugu, izan ere, beurak guk baino esperientzia handiagoa dute honelako kasuetan, eta gerora begira, honelako proiektuak abian paratzea interesgarria izan daiteke gure herrialdean ere. Laburki bada ere hau azaltzen saiatuko gara.

Katalunia betidanik pasaleku bat izan da. beste leku gehienetan bezala, Katalunian ere II.Mundu Gerrateren inguruan jende mugimendu ugari izan zen; jende asko joan eta beste asko etorri egin ziren. Espainiar emigrazioari dagokionez, Euskal Herriaren antzera, 1950-1970 urteen inguruan jende ugari joan zen Kataluniara, baina etorkin hauentzat, Espainiako beste ingurune batera zihoazen, hau da, hauetariko askok, ez dute kontuan Katalunian gaztelania ezezik, beste hizkuntza bat ere solasten dela, eta bertakoek katalanieraz egiten dutela. Garai honetan etorri ziren etorkin ugari, ez du katalaniera ikasi, eta honek izan duen eragina handia izan da katalanieraren erabilpena eta ezagupena neurtzeko orduan.

Lehenago aipatu bezala, gaur egungo inmigrazioa bestelakoa da. 90. hamarkadako emigrazioaren ezaugarriak bestelakoak dira, eta dagoeneko, estatu espainoleko etorkinen kopurua, atzerrikoena baino txikiagoa dela esan dezakegu. Honek guztiak, hezkuntzan bere eragina izan du eta aldaketak ere izan dira eta Lehen Hezkuntzan katalanierak bere lekua izan arren, Bigarren Hezkuntzan gaztelaniak leku aunitz du.

TAE²⁷ko esperientzia zertan datzan:

TAE delakoa, eskolan egokitzeko tailerra da, batez ere etorkinei zuzendutako eskolak izaten dira. Han, alfabetatu eta katalanierarekin lehen kontaktua izaten dute normalean. Izan ere, auzoetan elkartzten dira, langabezi arazo ugari dituzte eta bertan, euren hizkuntza eta gaztelera erabiltzen dute, ez katalaniera.

Eskolan egokitzeko tailer hau haur eta gazteei zuzendutako eskolak ematean datza, egokitze prozesu bati hasiera emanez. Bertara joaten direnak normalki Kataluniara ikasturte horretan iritsitako eta bertan eskolatu gabeko jatorri arrunt desberdinetako ikasleak izaten dira. Gehienak alfabetatu gabeak dira eta ez dute gure alfabetoa ezagutzen.

Bertan, 9 hilabete pasatzen dituzte idazten eta hitz egiten ikasten. Astean 18 orduz aritzen dira bertan eta gainontzeko ordutan institutu arruntetara joaten dira baina ikasgai zehatz batzuetara.

²⁶ David Caldeira, Kataluniako proiektu honetako kideak Udako Euskal Unibetsitatean emandako informazioa.2002.

²⁷ TAE; eskolan egokitzeko tailerra

Hiriburuen inguruan 39 TAE aurkitzen dira. Nahiko talde malguak izan ohi dira, mugimendu handikoak, etengabe ikasleak sartu eta sartu ari baitira.

TAE orain 4-5 urte inguru sortutako esperientzia da, (aurretik beste esperientzia batzuk bideratu ziren) eta bere alde positibo eta negatiboak ditu.

Alde negatiboak;

- Administrazioak ez du egoera ezagutzen eta beraz, laguntza eskasa eman dezake.
- Goizetan TAEn biltzen diren guztiak etorkinak izan ohi dira, baina arratsaldeko eskoletan beste ikasleekin nahasturik egoten dira, bakoitza bere institutuan eta ondorioz, asko ez dira arratsaldeko eskoletara joaten.
- Sarritan, TAEn egoera idiliko batean daude, beurei espreski bideratutako irakasleak dituzte, eta askotan somatzen ditugun jarrera paternalistak alde batera utzi behar ditugu, honek ez baitio etorkinari batere laguntzen.
- Ikasle alfabetatu gabeekin 9 hilabete ez dira nahikoak.

Positiboak:

- 80. hamarkadan egiten ziren egitasmoak eskolaz kanpo egiten ziren, gaur egun eskolaren barruan gauzatzen dira.
- Egoera berri honi aurre egiteko materiala sortzen ari da.
- Emaitzak positiboak dira, izan ere ikaslearean egoera beti ere hobetu egiten da, baina eskaera beti eskaintza baina handiagoa izan ohi da.
- Irakasleak esperientziadunak dira eta ez dute kodea aldatzen.
- Irakaslea pertsona erreferentziala da etorkinaren eskolaz kanpoko bizitzan ere bai.

Halaz ere galdera eta zalantzak sortzen dira TAEn amaitu eta gero zer egin? Gaur egun ez dute beste eredurik edo aukera posiblerik.

Zenbait gauza lortu beharko lirateke halere; gutxieneko egonkortasun bat, bai irakasle bai ikaskideen eta baita ikastetxeen aldetik ere.

Ondorio gisa, etorkiekin bizi egin behar dugu, eta hauek beuren artean elkabizitzen eta gizarteko beste alor guzietan parte hartu gabe eta inolako kontakturik gabe bizi badira, ez dute ez gizarten behar bezalako integrazioerik lortuko ezta katalaniera ikasiko ere.

4.4. AZKEN GOGOETA

Orain arte ikusi dugunez, nahikoa gai korapilatsua eta berria dugu etorkinen intregrazioarako aferak.

Giza taldeek beren lurraldeetatik irtetzeko dituzten arazoak oso bestelakoak dira, baina normalki, bizitza hobe baten beharra eta bilaketak bultzatzen ditu emigratzera. Honenbestez, beuren lehenasunek praktikotasunari begiratzen diete, eta hemen igarotzen dituzten lehen hilabete eta urteak gutxieneko beharrak asetzera bideratzen dituzte; lana, etxea, gutxieneko egonkortasuna...Beraz, hizkuntzaren aferak ere praktikotasunaren alde horretatik ikusten dute.

Bestalde, ikusi dugun moduan eta beti ere datuak nahiko mugikorrek direla kontuan izanda, Euskal Herrian egun bizi diren etorkinak biztanleriaren %1-2ko kopurua besterik ez dela gogorarazi behar dugu, normalki nahiz eta gure gizartean dugun hezkuntza maila beretsuko pertsonak izan, bertakook nahi ez ditugun lanak egin ohi dituzte.

Etorkina gurera iristen denean izaten duen lehen kontaktua gizarte zerbitzuekin edota gobernu kanpoko erakundeekin izaten da, eta normalean ez dute gure kultura, hizkuntza eta ohituren berri izaten. Aipatzekoa da halere, hauetako zenbait elkarte eta pertsonen egoera hau ezagututa bertako kultura, hezkuntza ereduak, hizkuntza... hauei ezagutarazten egiten duten lana.

Bestalde, gero eta ugariagoak dira bertara iristen diren familiak eta bertan gelditzeko asmoa azaltzen dutenak.

Datuak ikusirik, joera hau gero eta handiagoa da eta urte batzuen buruan etorkinen kopuruak handiagoak izango direla atzeman daiteke. Honenbestez, gurean gai hau jorratzen hasiak gaude zenbait alorretatik; hezkuntza, soziolinguistika, euskalgintza, elkarte...eta abarretatik. Izan ere, euskal komunitatearentzat izugarritzko garrantzia izango du etorkin hauek eta eurekin datozen seme-alabak euskal mundura hurbiltzea.

Nola gauzatu hau ordea? Arestian ikusi dugunez, zenbait egitasmo dagoeneko abian dira (hezkuntzan, hizkuntza plangintzetan, elkarteetan...) eta zenbait irizipide eta lan ildo ere markatu direla edo lantzen ari direla esan dezakegu.

Orain arte ikusitakoaren ondorioetariko ba izan daiteke, gizarteari orokorrean dagokion zeregin bat dela, hau da, jarrera aldaketa bat garatu, aurriritzi ugari baitaude etorkinen inguruan. Beti etorkinaren esku utzi izan da "integratu" beharrerako lan hori, gizarteak berak inolako esfortzurik egin gabe. Fenomeno hau egunetik egunera indar handiagoa hartzen ari da, eta hemendik aurrera etorkinekin elkarbizi beharko dugu (garai batean egin genuen bezala)

Bestalde, elkarbizitza hau gauzatzeko, kultur aniztasunak onartu eta hauek landu beharko dira.

Hezkuntzak gai honetan duen garrantzia aipatzen dute behin eta berriz adituek eta alor honetan lehen aipatutako ideia nagusiak laburbilduko ditugu.

Hezkuntzaren alorretik, kultur aniztasuna eskoletan lantzeko dagoeneko zenbait proposamen badaude ²⁸ eta ikastetxe bakoitza gutxi-asko bereak prestatzen dihardu.

Kontuan hartu behar dugu, giza talde eta herri desberdinetakoak ditugula etorkinak, eta beraz, kultura, hizkuntza eta ohitura desberdinak dituztela.

Etorkin helduak euskal mundura hurbiltzeko zenbait saio egiteko proposamenak badira han-hemenka (euskarazko saio bereziak, eskolak...) baina egun fenomeno hau zuzenean bizitzen ari den arloa hezkuntza da.

Ikusitakoaren ondorio batzuk:

- Lehen aipatu bezala, zenbait tokitan ghetizazio joera nabarmentzen ari da, eta etorkin ikasleen kopuruak gainezka egiten du. Kultur aniztasunaren ikuspegitik eta irakaskuntzaren ikuspegitik, hau komenigarria ez dela ikusi dugu, honek ez baitu pertsona horien integrazioarako laguntzen.
- Bestalde, 3-4-5 urteko umeekin arazoa ez da hain larria izaten, hasiera-hasieratik gela zehatz batean sartzen baita eta bertan garatzen baitu bere eskolarako integrazioa. Arazoa larriagoa da haurrak helduagoak direnean, ikasturtea dagoeneko hasia dagoenean eta eskolara inoiz joan ez direnean.
- Etorkinek ez dute D ereduaren ezta euskal munduaren berririk.
- Zenbait zonaldeetan euskarak pertsona hauentzat duen baliagarritasuna zalantzan jartzen da. Zonalde euskaldunetan faktore hau errazago bidera daiteke, izan ere gizarteratzeko euskara benetan baliagarria izan daiteke.
- Benetako kultur aniztasuna garatzeko dauden oztopoak: mezu negatiboak, arrazakeria...eta honek dakarren gizarte bazteketa eta ghetizazioa.
- Euskararen gaia urruti samar gelditzen zaie, beste lehentasun batzuk dituzte.
- Euskarak eskaintzen ahal duen integrazioa; bi hizkuntza dituen herria izaki, biak jakinda izan ditzaketen aukera zabalagoak eskaini.
- Kanpotarren etorrera Esukal Herrian ez da berria. Estatu espainoletik iritsitako pertsonak asko izan ziren duela ez hainbeste, eta hauek eta euren seme-alabak (bigarren eta hirugarren belaunaldiak) gutxi-asko euskal komunitatean integratu dira. Bizitzako une historiko horretatik ikasi eta eurenganako hurbilketa garatu.
- Etorkinarekiko hurbilketak hauek gerturatzea bultzatzen du. Katalunian egindako ikerketa baten emaitzek hau garbi azaltzen dute. Bertan, emakumezko marrokiar baten hizkuntzaren (kasu honetan gaztelera) ikasketa prozesua eta estrategia aztertu zuten. Emakume hau ez zen alfabetatua bere ama-hizkuntzan, eta eskolak beste etorkin baten eskutik

²⁸ Adibidez *Kultura Arteko Hezkuntzaren 20 saio*, SOS Arrazakeria Nafarroa, 2002.

jasotzen zituen. Eguneroko bizitzako gaiak lantzen ziren, guztiz praktikoak, eta beren artean sortuako enpatia lagungarria oso izan zen ikasketa prozesurako.²⁹

- Giza -alor guztietan esku hartzea proposatzen dute adituek; helduen irakaskuntzan, umeen eskolatzean, aisialdian, gizarte zerbitzuetan, udaletan, euskaltegietan, elkarteetan, euskalgintzan...eta eguneroko praktikotasunean behar dugun alor guztietan. Badugu beraz non lan egin.

²⁹ Ikus informazio gehiagorako EDITH REYES MUÑOZ, *Inmigración y lenguaje. Un estudio de caso*. Universidad Autónoma de Barcelona.

BIBLIOGRAFIA

- RUIZ DE OLABUÉNAGA, J.I. 2000. *Inmigrantes*. Acento Editorial (7-33.orr.)
- ALVAREZ, I. "Los retos de la inmigración" in CONTRERAS, J. 1994. *Los retos de la inmigración*. Talasa.
- AZURMENDI, J. 1998. *Hizkuntza eta talde-nortasuna*. Donostiako Udako XII. ikastaroak, 1993ko uztaila:
Tejerina B. "Lengua e identidad nacional: cambios en la definición de la identidad vasca".
- Larrañaga I. "Hizkuntza komunitatea eta nortasun nazionalaren pertzepzioa" 122-143.orr.
- Bourhis R.Y. eta Sachdev I. : "Hizkuntza eta identifikazio soziala" 97-121.orr.
- ERIZE, X. 1997. *Nafarroako euskararen historia soziolinguistikoa 1863-1936*. Nafarroako Gobernua. Hezkuntza eta Kultura Departamentua.
- SANCHEZ CARRIÓN J. M. "TXEPETX",. 1991. *Un futuro para nuestro pasado*.
- MARTINEZ DE LUNA I. eta JAUSORO N. "Euskararekiko motibazio sinbolikoak" 100-109.orr. in INTXAUSTI, J. 1998. *Euskararen aldeko motibazioak*. Donostiako Udako XIII. ikastaroak. 1994ko uztaila
- NAFARROAKO PARLAMENTUKO ALDIZKARI OFIZIALA, 2202-03-15, 27.zkia: NUPeko txostena.
- BAT aldizkaria. 40.zkia. 2001eko iraila.
- ARGIA, Gure mendea, 1958, Donostia, *Etorkinak eta Euskal Herria*
- ARGIA On Line – 1810.alea – 2001eko ekainaren 03a.
- SOS Arrazakeria Nafarroa. *Kultur Arteko Hezkuntzaren 20 saio*. 2002
- REYES MUÑOZ, E. "Inmigración y lenguaje. Un estudio de caso". Universidad Autónoma de Barcelona.
- "Etorkinak eta euskara" Udako Euskal Unibertsitatea. Iruñea. 2002-09-08
- SORTZEN-IKASBATUAZ
- STEE-EILAS. "Migrazio politika Hezkuntzaren ikuspegitik" 2002
- KÖNING M. "La diversidad cultural y las políticas lingüísticas"